

Debajazz Espaloian

Urriaren 8an hasiko da jazz lehiaketa
KULTURA, 21



Mondrak garaipena lortu du Lesakan

UDAK eta Aloña Mendik, berriz, berdindu egin dute
KIROLA, 14-15

Glen Hughes abeslaria

Rockaren ahotsa Jam aretoan izan zen
KULTURA, 20



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko urriaren 3a • 2. urtea • 72. zenbakia • 0,90 euro

Ehun mila lagunera ez da iritsi, baina arrakasta izan du jaiak

Antolatzaileek balorazio oso positiboa egin dute; datu zehatzak asteon emango dituzte jakitera

Euria erruz egin zuen arren, milaka euskaltzale hurbildu ziren atzo Leintz bailarara Arizmendi Ikastolak antolatutako jaira. Antolatzaileek atzo esandakoaren arabera, "jaila arrakastatsua suer-

tatu da, nahiz eta 100.000 bisitariren aurreikuspena bete ez den". Eguraldiak partaideen kopuruan izandako eragina kontuan hartuta, bi kontu korrante zabaldu dituzte laguntza emateko. **2-7**

KONTU ZENBAKIAK

Bi kontu zabaldu dituzte:

Kutxa:

21010381020011473931

Euskadiko Kutxa:

30350002110020042125

EKITALDIAK

Euria erruz egin zuen arren ez zen ekitaldi bat bera ere bertan behera geratu. Nahiz eta batzuk lekuz aldatu behar izan zituzten

IBILBIDEAN JENDE ASKO

Goizeko lehen orduetatik jende ugari ibili zen 8,1 kilometroko zirkuitoan.

Hori bai, euritakoa

beharrezkoa izan zen

AUTOBUS ZERBITZUA

Trafiko arazo larririk ez zen izan eta egunerako jarri zuten autobus zerbitzu bereziak oso ondo funtzionatu zuen



Jende askok egin zuen ibilbidea atzo. Hori bai, guztiek euritakoa edo zamarra soinean zutela.

AITOR LIZARRALDE

Apeztegia eta Gonzalez gehiago izan ziren



18

Errosaixo Bixamona gaur Oñatin

San Migel jaiaren azken txanpan koadrilak mozorrotu egingo dira 10

FordFocus berria. Kalitatea bete-betean.



MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Goizteko pentasituak,
irauteko eginak



GEUREAN

- Martxu Kajoiren bederatziurrena egin zuten egubakotizean | 9
- Auto eta traktore karabana egingo du eguaztenean Hiltegia bizirik taldeak | 9



Nikolas Segurolak oso balorazio positiboa egin du artzainen kongresuaz | 8

KILOMETROAK 2005 LEINTZ BAILARAN



AITOR LIZARRALDE

Agintari, Arizmediko arduradun, guraso, ikasle eta euskaltzale ugari batu ziren Basabeazpi ikastolaren aurrean jaiari hasiera emateko.

KMK '05 | EURIA IZAN ZEN DUDA BARIK ATZOKO PROTAGONISTA NAGUSIA

Aurreikuspenak bete ez arren, euskaltzale asko batu zen atzo

Kontu korrante bi zabaldu ditu Arizmendi ikastolak, atzo Aretxabaletara joan ezinda geratu zirenek laguntasuna emateko aukera izan dezaten

Marijo Deogracias

100.000 lagun espero zituzten atzo Arizmendi ikastolaren jaietan. Euri jasak baina, jende kopuru hori ez batzea eragin zuen. Hala ere, KMK '05en antolatzaileek atzo Aretxabaletan egindako jaiaren balorazio oso positiboa egin zuten. Ez zen inzidentzia aipagarrikerik gertatu eta euria zela eta, ikuskizunaren batzuk lekuz alda-

tu behar izan zituzten arren, ez zen ekitaldirik bertan behera geratu.

ATERRALDIAK

Ibilbidearen irekiera ekitaldian izan zen lehenengo ateraldia; 10:30ean ordea, euria gogotik ari zuen ibilbidearen sarrerako arkutik pasatukeran. Laugarren gunera iritsi orduko, bigarren aterraldiarekin batera, gazte asko

animatu ziren eszenatokiaren bueltan dantza egitera.

Eguerdian eguzkia atera zen eta arratsaldeko lehenengo orduetan, zortzigarren guneko kontzertuetara gazte mordo bat batu zen, hango lokatzari muzin eginez.

GIRO BIKAINA

Aretxabaletara hurbildu zen jendeak eguraldi txarrari aurpegi ona jarri nahi izan zion atzo. Bozgorailuetatik ere, horretara animatzen jardun zuten Aretxabaletara iristen zirenak: "aurpegi ona jarri eta aterkipean egin ibilbidea" esaten aritu ziren behin eta berriz. Eguerdia arte jendetza polita ibili zen 8 gunetan zehar osatu zuten 8,1 km-tako ibilbidean. Kolore eta tamaina guz-

tietako aterkiak ziren nagusi, baina bertaratu zirenek ez zuten amore eman eta asko izan ziren ibilbidea osorik egitera animatu ziren txiki, gazte eta helduak.

"Euriari aurpegi ona jarri eta aterkipean egin zuten ibilbidea"

"Badakigu jende asko geratu dela Aretxabaletara etorri ezinda, eguraldiagatik"

LAGUNTZA ESKE

Arizmendi ikastolak balorazio positiboa egin arren, eguraldi txarrak partaideen kopuruan izan zuen eragina kontuan hartuta bi kontu korrante zabaltea erabaki du. "Badakigu jende asko geratu dela Aretxabaletara etorri ezinda eta horiei guztiei Arizmendi ikastolari laguntasuna adierazteko aukera ematea erabaki dugu", adierazi ziguten atzo iluntze aldera antolatzaileek.

Kontu zenbakiak

Kutxa
2101.038.1.02.001.1.47393.1
Euskadiko Kutxa
3035.000.2.11.002.0.04212.5

KILOMETROAK 2005, LEINTZ BAILARAN

INAUGURAZIO EKITALDIA | OSTEAN IBILBIDEA EGITEARI EKIN ZIOTEN EKITALDIRA ETORRITAKO GUZTIEK

Euriari aurre eginez, aurpegi ezagun askok bat egin zuten ikastolen eta euskararen jaiarekin

Agintari eta eragile sozial ezagunak elkartu ziren goizean goizetik atzoko festa ospatzeko

Edu Mendibil

Ohi denez, Kilometroak jaiak aurpegi ezagunak bildu zituen atzo Leintz bailaran. Goizeko bederatzia aldera jendea batzen hasi zen Aretxabaletako Arizmendi-Basa-beazpi Ikastolan. Besteak beste, han izan ziren Miren Azkarate Kultura Sailburua, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Aldun Nagusia, Begoña Bilbao Legebiltzarreko presidentea, Aintzane Ezenarro Aralarreko Legebiltzarkidea, Antton Karrera Ezker Batuako Gipuzkoako burua, Joseba Egibar GBBeko presidentea, Martin Aranburu EAKo Hezkuntza arduraduna, Leintz bailarako alkateak, Juan Mari Atutxa, Koldo Azkoitia diputatua edo Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohia.

Arritxu Oliden Aretxabaletako alkateak ongiatorria egin zien guztiei. Tontxu Camposek hitz egin zuenean, *Euskal Herriak Bere Eskola* zioen pankarta erakutsi zuten bi gaztek. Mikel Lezamiz Arizmendiko presidentek mugimendu kooperatiboaren bultzatzaile izandako On Jose Maria Arizmendiarrera ekarri zuen gogora. "Hezkuntzan jartzen



AITOR LIZARRALDE

Alberto Iñurrategik eta Jose Antonio Altuna Txatillo-k moztu zuten zinta.

zuen pertsona eta herri baten askapenerako oinarria. Behin kazetari bati zuzendu zionez, Arrasateko esperientzia kooperatiboa ez da mugimendu ekonomiko bat bere garapenerako hezkuntza erabiltzen duena, bere garapenerako baliabide ekonomikoak erabiltzen dituen hezkuntza mugimendua baizik. Pizgarria da benetan hezkuntzan jarduten dugun denontzat eskuartean horrelako zeregin garrantzitsua dugula entzutea". Ondoren, etorritako guztiei jaiarekin

gozatzeko gonbidapena egin zien Mikel Lezamizek: "Naturan murgildutako ibilbidea duzue aurrean eta Euskal Herriko mendiak Ikastoletako jaiaren zaindari dira gaur".

Antolakuntzan jardundakoei eskerrak eman zizkien Zubizarretak

Antolakuntzan jardundako borondatezko 1.500 lagun ingururi eskerrak eman zizkien Jose Ramon Zubizarreta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko presidentek. "Kilometro asko egin du Euskal Herriak bere burujabetasuna berreskuratzeko bidean. Askok dugu oraindik egiteko, baina ikastolen eskubideen eremuan buru-belarri dihardugu horretan, behar denarekin lankidetzan. Familion presentzia, arnasa eta laguntza sentitzen dugun bitartean Ikastolak ere aurrera egingo du".

DANTZAK ETA ZINTA MOZTEA Arizmendiko haur, irakasle eta gurasoek Kilometroetako kantarekin gertatutako koreografia eskaini zuten eta txistularien eta dantzarien saioa izan zen. Jende ugari elkartu zen hasiera ekitaldian. Agintarien eta antolatzaileen hitzen ostean, Alberto Iñurrategi mendizaleak eta Jose Antonio Altuna Txatillo-k zinta moztu eta jaiari hasiera eman zioten. Jarraian ibilbideari ekin zioten guztiek. Zortzi kilometroko ibilbide ederra zuten aurretik.

• ELKARLANA ETA EUSKARAREN NORMALIZAZIOA AIPATU ZITUZTEN AGINTARIEK



TONTXU CAMPOS | HEZKUNTZA SAILBURUA

"Arizmendikoak sekulako ahalegina egiten ari dira Leintz bailaran kalitatezko hezkuntza eskaintzeko. Ia 3.000 ikasle, 6-7 erai-kinetan banatuta... Gaurko jaiak erakusten du elkarlanari esker eraikitzen dela etorkizuna. Familia, eskola eta gizartea uztartzea beharrezkoa da horretarako".



GONZALEZ DE TXABARRI | GIPIZKOAKO ALDUN NAGUSIA

"Euskararen festa batera etorri gara, euskararen erabilera suspertzeko asmoz. Kilometroak jaiak euskararen erabilera ziurtatzeko maratoni bilakatu da gaur. Ea gaur beste urrats garrantzitsu bat ematen den. Euskaltzaleak elkartzea beti da gauza ona, bidearen zati bat elkarrekin egiteko".



XABIER MENDIGUREN | KONTSEILUA

"Euskararen normalizazioari begira egiten den beste urrats bat da hau. Badaukagu erronka handi bat: zoritxarrez gure irakaskuntzak ez du lortzen lortu behar duena, hau da, gure ikasleak euskara jakinez irtetea 16 urterekin. Adostasun zabala eta ausartago jokatzea falta zaigu".



MIREN AZKARATE | KULTURA SAILBURUA

"Besteak beste, jendea animatzeko eta oraindik ere etorkizuna irabazteko daukagula akordatzeko balio du jai honek. Hitzun gehiago, eta batez ere, euskaldunok euskaraz berba egitea lortu behar dugu. Bestalde, guztiz eredugarria iruditzen zait Arizmendiren modeloa".



JOSE ANTONIO ALTUNA | ARRASATEKO ALKATE OHIA

"Oso pozgarria da 24 urteren ostean Kilometroak jaiak berriro gurea ekartzea. Batzen gaituen jaiak eta aurretik nahiko banatuta gaudenez, batzen gaituzten gauza hauek zaindu egin behar ditugu. Oso egun berezia da niretako. Zorionez, gauzak dezente hobetu dira 1981etik hona".

KILOMETROAK 2005 LEINTZ BAILARAN

OMENALDIA | IKASTOLEN ETA EUSKARAREN ALDE LAN EGITEA AITORTU ZIETEN

Omenduak: Kooperatiba eta ikastolen sortzaileak, guraso, ikasle eta irakasleak, eta HUHEZI

Aipamen berezia egin zieten urteetan lan handia egin duten elkarte eta lagunei

Iker Barandiaran

Almen gunean ekitaldi xume bezain hunkigarria egin zien Arizmendik ibarrean euskararen eta ikastolen alde zeresana izan duten elkarte eta lagunei. Ibarreko alkatetza eta Kontseilua, AEK, hainbat alderdi, Eusko Ikaskuntza eta bestelako erakundeetako ordezkariak izan ziren. Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikari Mari Karmen Arrieta izan zen aurkezlea. Arrietaren esanekin eta bideo labur batzuen laguntzarekin omendutakoek egindakoa laburbildu zuten.

Ibarrari aberastasuna, lan egiteko kemena eta elkartegintza eman dizkioten kooperatibak izan zituzten gogoan. Arizmendiko lehendakari Mikel Lezamizek eman zion oroigarria Alfonso Gorroñogoitiari.

Horren ostean, Arizmendiko lehendakari ohi Felix Ormaetxea omendu zuten. Haren lekukoa hartu duen Txaro Iraetak egin zuen lan hori.

IRAKASLE ETA GURASOAK


Ikastolen elkarteko lehendakari ohi Paulo Agirreri haren ordeko Jose Ramon Zubizarretak eman zion oroigarria. Eskoriatzan hainbeste irakasle trebatzeagatik, Irakasle Eskola gogoa izan zuten. HUHEZIKO egungo arduradun Jose Antonio Mendikute omendu zuen Jabier Retegik. Azkenik, guraso, irakasle eta ikasleei merezitako aipamen berezia egin zieten.



AITOR LIZARRALDE

Ekitaldia bukatzeko, omendutako lagun guztiak batu zituzten taula gainean, ibarreko hainbat elkarte eta erakunde ordezkatzuz.

• ZER ESANAHI DU ZURETZAT EGIN DIZUETEN OMENALDIAK?




ALFONSO GORROÑOGOITIA |
ULGORREN FUNDATZAILEA

“Uste dut egia dela kooperatibak bultzada handia eman diola euskarari, ikastolari eta hezkuntzari. Bestalde, hunkigarria da hainbeste lagunek lan egitea. Hor ikusten da herriak asko maite dituela ikastola eta euskara”.



FELIX ORMAETXEA |
ARIZMENDIKO PRESIDENTE OHIA

“Arizmendi osoak merezi du omendaldi hau, gehiengo batek lan ikaragarria egin duelako. Horrez gain, uste dut Arizmendi erreferente bihurtu dela, ikastolen batasunak alor guztietan indarra eman digulako”.



PAULO AGIRRE |
IKASTOLEN ELKARTEA

“Omenaldia jasotzeak esan gura du aurrera zoazela eta atzetik beste batzuk datozela. Hori ona da. Urte aberasgarriak bizi izan ditut, sorrera oso berezia izan zen. Erasaldien ostean, gaur berrindartuta eta garatuta daude ikastolak”.



FELIX BELTRAN DE HEREDIA |
GURASOEN ELKARTEA

“Nik gurasoen elkarteko ordezkari moduan esku hartu dut ekitaldian. Ondo deritzot gurasoei aipamen berezia egitea, lan handia egiten dutelako ikasturte osoan, ez bakarrik Kilometroetan; asko zor diegu”.

Oiartzungo herriak hartu du Kilometroak '06ren lekukoa

I.B.

Heldu da Kilometroak 2006 antolatzeke ordua. Iaz Arizmendik Zarautz-Orion hartu zuen lekukoa, eta atzo Oiartzungo Haurtzaro ikastolari eman zioten.

OIARTZUN, ORDEZKATUTA

Oiartzungo Haurtzaro ikastolako Arantza Manterola eta Sor-

kunde Lekuona, lehendakaria eta zuzendaria, hurrenez hurren, igo ziren taula gainera. Joxe Ramon Zubizarretak, Mikel Lezamiz eta Txaro Iraetaren eskutik, eman zien lekukoa. Oiartzuarrek azpimarratu zuten alkatea ere han zegoela, herri guztia lanean jarriko denaren erakusle. Prestakuntza lanean irailean hasi zirela aitortu zuten. 1992 urteko

Oiartzungo Kilometroetan egin zuten moduan, gogor helduko diotela ziurtatu zuten, ikastola guztien izenarengatik eta euskararengatik.

Hunkituta zeuden Haurtzarokoak. Are gehiago, 5 urteko ikasle baten heriotza gertatu berri zela aditzera eman zuten, eta ekitaldian gogoan izan zituzten gatzetxea eta haren senideak.



AITOR LIZARRALDE

Argazkian, Oiartzungo Haurtzaro ikastolako ordezkariak lekukoa hartzeko zain.

KILOMETROAK 2005 LEINTZ BAILARAN

Kilometroetako koordinatzaile kargua izan du atzora arte. Gaur, bere ohiko lanera itzultzekoa zen -Mundukiden ari da-, gorputzak atsedena eskatzen ez badio.

Izan ere, zapatuan goizalderarte aritu ziren atzoko dena gertu egon zedin eta atzo ere, goizetik martxan Leintz bailarako ikastolen aldeko jaiaren dena ondo ateratzeko. Euria

egingo zuela bazekiten, hortaz, ardurarik handiena hala ere etortzea erabaki zuen jende guztiak goza zezan izan zuen, "gozatzeko eskubidea ere badugulako".

ANDONI MUJIKAK | KMK'05-EKO KOORDINATZAILEA

"Eurria egin arren balorazio positiboa egiten dugu"

Marijo Deogracias

100.000 lagun espero zenituzten, baina...

Aurreikuspena bete ez den arren, jaia arrakastatsua suertatu dela azpimarratu behar dugu. Egun osoan zehar eurria egin zuen; hala ere, balorazio oso positiboa egiten dugu, jendeak ikastolari adierazitako elkartasunagatik.

Hala ere, badakigu jende asko etorri ezinda geratu zela, euriagatik. Hori dela eta, bi kontu korronte zabaldu ditugu Arizmendi ikastolari laguntasuna eman ezinda geratu zirenek, horretarako aukera izan dezaten. Kutxan eta Euskadiko Kutxan zabaldu ditugu.

Eguraldi txarragatik antolatutako egitarauan aldaketarik egin behar izan zenuten?

Kanpoaldean iragarrita zeuden ekitaldietako batzuk aterpeko eszenatokietara eramane behar izan genituen, baina ekitaldi bat bera ere ez zen bertan behera geratu.

Bailarak duen garraio publiko eskaiagatik trafikoko arazorik espero zenuten?

Pentsatzekoa zen kanpotik etortzekoak ziren autobusei ikastolak jarritako autobus bereziak gehituta arazoak izango zirela, baina ez da arazo larriarik egon. 19:30ak bueltan zen ordu kritikoa eta nahiko ondo joan zen guztia.

Amaitu da. Eta gaur zer?

Ez dakit; ezin dizut erantzun. Inoiz bizi bako astelehen mota bat da, hortaz ez dakit. Mila lantxo ixteko dago, baina hori ere egingo dugu.

Hala ere, *Plazara* leloarekin kilometroen inguruan sortu duzuen lan dinamikari eutsi nahi diozuela zabaldu duzue.

Nahiko genuke. Lan taldeek esaterako, eurek gura izan dituzten ekitaldiak antolatu dituzte; jendeak, neurri handi baten, gustuko izan duena antolatu du arlo guztietan. Jakina, lan pilaketa handia ere egon da, baina gozameneko nekea arinagoa da.

Hortaz, *Plazara* horretatik zerekin geratzen zara?

Plazerarekin. Eskubide horrekin, plazera eta gozamina. Euskal Herrian, bailara honetan edo Europan ez dakit hitz horrek bedeinkazio guztiak dituen, baina mezu hori zabaldu nahi izan dugu *Plazara* leloarekin: norberaren barruari esatea disfrutatze eskubidea badaukagula eta ez bakarrik jaiegun baten. **Ze inpresio hartu zenuen domeka goizean, jendea bazetorrela ikustean, bota zuenarekin?**

Eguna guretzako mugarririk bat zen; ez bakarra, baina bai oso garrantzitsua. Azkeneko asteetan, domekako goizeko 09:30etarako zenbat geratzen zen izan dugu gogoan aldioro. Atzo egin nuen lehenengo gauza autobusak ondo heltzen ari ziren galdetzea izan zen. Autobus mordoak zatorrela jakin nuen, jendea etorri eta etorri ikusi nuen pozik sentitu nintzen. Zaparrada botatzen ari arren, jendea bazetorrela ikusten nuen... Badakit jende asko Aretxabaletan geratu zena; bagenekien hori gertatuko zela eguraldi ona zein txarra egin. Hortaz, ibilbidera hainbeste jende heltzen zela ikusita, pozik nago.

Herrian geratu zen jende gehienak gazteak ziren.

Goizeko 10etatik igarri genuen hori. Askok ibilbidea



Andoni Mujikak asti gutxi izan zuen atsedena hartzeko, baina tragoxka bat hartu zuen gurekin atzo.

egin zuten, baina bagenekien hori. Guztiok gatoz ondo pasatzera. Egunak motibazio plus hori badauka eta horrek zera bikoitza dauka: hor jaten den ogitartekoa, erosten den elastiko edo pegatina horrekin uzten den margena badakizu non lagatzen duzun eta gainera, lagun artean ondo pasatzera zatoz.

Gazteek ere beste hainbeste egingen dute, disfrutatzen datoz eta natural datoz, jaira datoz.

Arizmendi ikastolak daukan dimentsioagatik, zerbait handiagoa antolatze presiorik sentitu duzue?

Ez gara inori begira egon. Aholkuak eta kritikak leku askotatik jaso ditugu, baina espero genituen. Zorionez, lankidetz

eta parte-hartzea handiak izan dira. Atzo, esaterako, 1.500 lagun aritu ziren lanean eta ikastola bera eta berau osatzen duten agenteen artean egon den mestizaia batetik, eta ikastola eta herriaren artean sortu den arteariak bestetik izugarriak izan dira. Hori da garrantzitsuena eta horrekin geratzen naiz.

"100.000 lagun aurreikuspena bete ez den arren, jaia arrakastatsua suertatu da"

"Bi kontu korronte zabaldu ditugu laguntasuna eman ezinda geratu direnendako"

"Egin nuen lehenengo gauza autobusak ondo heltzen ari ziren galdetzea izan zen"

"Guztiok gatoz ondo pasatzera. Gazteak ere disfrutatzen datoz, jaira datoz"

Servimasa

Sukaldeko altxariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

KILOMETROAK 2005 LEINTZ BAILARAN



Paella erraldoia ondo aprobetxatu zuten hauek, behintzat.



Irekiera ekitaldian hainbatek hartu zuen hitza, tartean, Mikel Lezamizek, Arizmendiko lehendakariak.



Irekiera ekitaldian botatako xaboi burbuilak harrapatzera jolastu ziren umeak.



1.500 lagunek jardun zuten atzo lanean. Askotarikoak egin zituzten, batzuek, irudikoek bezala ogitartekoak.



Lehenengo kilometroetan eta gero Oñatin egin zuen kontzertua Sorkunek.

• DEBAGOIENETIK ZEIN KANPOTIK, GUZTIAK IKASTOLEN ALDE OINEZ

LOREA, INMA, AITOR ETA ADOLFO |
ELGOIBAR

Urteroko zita da familia honendako Kilometroetakoa eta oso gutxitan egin diote huts egunari. Esperantzatsu ikusi genituen, azaldu zigutenez, “Eguraldiak hobera egin dezakeela esan digute eta guk behintzat ibilbide osoa egin gura dugu, ea portatzen den”, dio amak. Hala eta guztiz ere, espero baino askoz ere jende gehiago ikusi zutela azaldu ziguten eta horrek ere animatu egin zuen laukotea. Egon ziren lehenengo gunea Aretxabaleta erdialdekoa izan zen eta bertan ikusitako giroa asko gustatu zitzairen, batez ere haurrentzako txokoak.

AMAIA, MAIDER ETA GARAZI |
ORERETA

Lehenengoko gunean zegoen jende gazte piloa ikusita festarako animatuta zegoen neska koadrila. Eguraldiarengatik beldurtu barik, batez ere kontzertuetara joan eta inguruak ezagutzeko gogoarekin etorri ziren. Arrasaten ikasten dute gipuzkoar hauek eta autobusez joan ziren Aretxabaletaraino. Atzoko egunean, gainera, euren lagunak bertara ekarri eta herria erakusteko aprobetxatu zuten.

IÑAKI ETA EMILIO |
MARKINA

“Urtero saiatzen gara Kilometroetara joaten, asko gustatzen zaigu. Ez dago eguraldi txarrik gu geldituko gaituenik eta ibilbide osoa egingo dugu”. Hala ere, zaparradaren erdian ibilbideari ekiteko zalantzan ikusi genituen markinarrak. Aretxabaletan eta inguruan sekula egon barik zeuden eta mendi-parajeak dira gehien gustatu zitzaiena.

KILOMETROAK 2005 LEINTZ BAILARAN



Etxeetako aterpeetan zabor ugari batu zen. Izango dute lana garbitzaileek!



Arientzan ira meta nola egiten den erakutsi zuten askoren gozamenerako.

• LAGUNTZA EMATEN ETA ANTOLAKETAN ARITU ZEN HERRITAR ASKO



KILOMETROETAKO MODA. Gehien ohiko kamisetak saldu bazituzten ere, mota guztietako arropa eta osagarriak zeuzkaten salgai. Eguraldi txarra zela-eta, antza, neguko jantziengatik hasi zen jendea galdezka. Horretaz gain, urtean zehar Arrasaten zabalik izan duten dendan ere asko saldu dute.



JO ETA KE SUKALDEETAN. Aterpeek bildu zuten jendetzarekin egun guztian gelditu barik ibili ziren txosnetako plantxak. Lorea Almen ikastolako gunean harrapatu genuen goiztiarrenen hamarretakoak gertatzen. Jatekoa eta edatekoa, gutxienez, ez zen falta izan atzokoan ibilbide osoan.



GOIENKARIAK, ALE BEREZIA. Gune bakoitzeko sarreretan ibili ziren Goienkariak Kilometroetarako bereziki ateratako alea banatzen. Guztira 33.000 bat ale inprimatu ziren; 48 orrialde, guztiak koloretan. Bailaratik kanpoko bisitari askok harri-duraz baina interesez jaso zuten aldizkaria.



EGURALDI TXARRARI BURLA. Neska-mutiko ilara galantak egon ziren haurren gunean aurpegiak margotzeko. Gehienetan tximeletak nahi bazituzten ere, haur askok aurpegietan Plazara leloa idaztea gura izan zuen. Eguraldi txarra zela eta, aterpeko ekintzak izan ziren nagusi gunehorietan.



JOKIN ETA AITOR |
ORDIZIA

“Bost urte jarraian daramatzagu Kilometroetara joaten eta aurten ere ez dugu hutsik egin!”. Giro polita zegoela esan arren, “sagar-doa hobea da!”, zioen Jokinek. Ibilbide osoa egiteko baino festarako gogo gehiagorekin etorri ziren goierritarrak. Arratsaldean kontzertu gunera joateko asmoa zeukaten, baina eguraldia zela-eta zalantzak zeuzkaten.



ENERITZ ETA AMAIA |
ARETXABAETA ETA ARRASATE

“Pena eguraldiak guztia zapuztu duela, ze oso ibilbide polita da aurtengoa”, dio Eneritzek. Hala ere, ez da hau neska hauen kexa bakarra: “Autobusa hartzeagatik euro bat ordaintzea ez zaigu ondo iruditzen eta antolaketan ez dakigu asmatu duten, ganora falta somatu dugu”. Urkuluko guneko txosnatan laguntzen ere ibili ziren bi neskek.



JESUS |
EIBAR

Inguruak ondo ezagutzen ditu Jesussek eta ibilbidea hasi baino lehenago mendi buelta egin zuen lagunekin. “Paraje eder hau aprobetxatuta Bedoñatik etorri gara Aretxabaletara eta oraintxe heldu gara Urkulura”. Zerbait jan eta bideari ekiteko prest zeuden.



MAIALEN ETA IHART |
ELGETA

Goizeko hamarretan hasi ziren bidea egiten eta eguerdirako iritsi ziren Elgetako neska hauek Urkuluko gunera. Kexa bakarra euria izan zen, baina giro polita zegoela iritzi eta ibilbidearekin jarraitzeko gogoarekin zebiltzan, nahiz eta lokatzez lepo egon. Ibiltzeaz gain, juergan hasteko gogoarekin zeudela ere aitortu ziguten.

Nikolas Segurolak bizitza osoa eskaini dio artzaintzari. Urteen joan-etorriaz, jarduera horretan izandako gorabehera guztiak gertutik ikusi ditu, eta etorkizuneko artzainak formatzen

jarduten du Arantzazuko inguruetan dagoen Artzain Eskolan. Aditua denez, Artzain Munduak antolatutako Munduko Artzainen III. Topaketak zein iritzi sortu dion jakitea egoki

dirudi, ekitaldi horren benetako balioaz jabetzeko. Handik hainbat ondorio atera ditu; bata da artzaina bokazioz dela artzain, ez aberasteko.

NIKOLAS SEGUROLA | ARTZAINA

“Espainiako artzainek guk baino arrazoi gehiago dituzte beldur izateko”

Asteleheneko Goienkaria

Nola joan da topaketa? Zein da zure sentsazioa?

Nik oso ondo joan dela uste dut. Badakit bazegoela beldurra atzera egingo ote genuen aurreko kongresutik, baina, aldiz, bestera izan da erabat. Azken topaketan elkartutakoaren hirukoitza izan da aurtengoan. Eta giroa ezin hobea izan da.

Zergatik etorri da, zure ustez, lagun gehiago?

Jendea ari da ikusten mese-degarri dela, eta gainera gero eta egarri handiagoa dago gure gaiez arduratzeko eta gauzak ondo egiteko; artzaintza ez diru-bide bat bezala hartuz, baizik eta daukagun kultura hori guztia jorratuz eta autoestimua berria garatuz. Hori oso positiboa da, eta jendea horretaz konturatzen ari da.

Euskal Herriko artzaintzat zer dakar Artzain Munduak antolatu duen ekimen horrek?

Oso positibotzat jotzen dut gauza hauek egitea. Bai kongresu hau, bai feriak, daukaguna azaltzeko gure eskuetan dauden baliabide guztiak aprobetxatzea oso pozgarria da gure artzaintza aurrera ateratzeko. Ez dugu dirua irabazten bertan; izan ere, kostua du horrek, baina izango du geroago bere emaitza.

Artzainek topaketan egindako hitzaldietan adierazi zuten naturari egindako gehiegizko babesak beren lanbideari kalte egiten dio. Zer deritzazu iritzi horiei?

Artzainak, berez, pesimista samarrak gara; gure kritika gehiena atzerakoia izaten da. Baina ados nago haiekin, zeren eta herri inguru askotatik bota egin gaituzte. Neurri batean ulertzen dut, jendeak bizi egin behar duelako; artzainok ere industria behar dugu, esaterako, baina hori konpentsatzeko horren ordezkoa beharko genuke erre-konpentsa moduan. Behin baino gehiagotan adierazi diet politikariei ez dudala ulertzen zer-

gatik ez diren utzita dauden base-riak prestatzen eta artzain gazteei ematen, ordezko bezala. Badira gazteak hori hartuko luketenak.

Zergatik ez duzue babesik? Badu zerikusirik artzaintzak ekonomian duen pisu txikiak?

Zoritxarrez, eta artzain gehienek esaten dutenez, ez da babesen dirua ematen ez duen ezer. Baina artzaintza ordaindu behar den bezala ordainduko balitz, eta Europatik datozen babesak horren txikiak ez balira, egoera guztiz desberdina izango litzateke, eta administrazioak gehiago arduratuko lirateke gurekin. Ardia ez da bakarriz gazta lortzeko, gure mendietako lorezainik onena da, eta horretaz konturatuko balira artzaintza salbatu egingo lukete.

Artzainek azaldu zuten, halaber, beste kezka bat: artzaintza azkenetan zela ondorengotzarik ez zuelako. Ados zaude?

Askotan entzun duguna da, baina nik ez dut Euskal Herrian horrenbeste ardi inoiz ezagutu. Eta berdin-berdin artzain profesionalen kopurua igo dela pentsatzen dut. Hortik jo beharko du artzaintzak, jarraitzekotan, profesionaltasun horretatik. Kongresuan entzundakoaren arabera, artzaintza galduko den beldurra dago. Hala ere, badirudi

“Hemen, artzaintza ezin da askorik kexatu. Beste herrietan egin ez den lana egin da”

“Artzainok, berez, pesimista samarrak gara; eta gure kritika gehiena atzerakoia da”



Nikolas Segurola.

Espainiako Estatuko herriek arrazoi dutela guk baino beldur handiagoa izateko; izan ere, guk bideratu dugu jada artzaintza. Herri horietan, ordea, mugimenduak sortzen ari diren arren, badakite gu baino 20 urte atzerago doazela. Dena den, ametsa hor dago. Gurekin erkatuta oso berandu dabilta, baina gu ere Iparraldearen aldean oso berandu hasi ginen.

“Zoritxarrez, eta artzain gehienek diote, ez da babesten dirua ematen ez duen ezer”

“Igo egin da artzain profesionalen kopurua; hortik jo behar du artzaintzak, jarraitzekotan”

Ahotsak altza zituzten artzainek kongresuan adierazteko beren jarduerari etorkizuna emateko elkarrekin indar egingo duten elkarrekin sortzeko beharra dutela. Kongresua izan daiteke senidetze horren abiapuntu?

Bai, izan daiteke, eta izan behar du. Gisa horretako ekimenek izugarriko bultzada ematen diote artzain munduari. Beharrezkoa da gure errebindikazioak egiteko denak elkartzea, eta egarri hori nabaria zen kongresuan. Baina eskaerak ez doaz aberastetasunak lortzeko nahiaren alde; konforme gaude gure txirotasunean, naturarekin lan eginaz, bizimodu gogor hori eramankorago egin nahi dugu, besterik ez. Ez dugu gehiagi eskatzen, bizitzeko hainbeste bakarrik. Eta gureak bizi dezan, gizarte osoarentzat onuragarri dena, denok elkarrekin egin beharko dugu lan.

Zeintzuk dira Munduko Artzainen III. Topaketatik atera dituzun ondorio nagusiak?

Lehenengoa, Euskal Herriko artzaintza ezin dela askorik kexatu. Beste herrialdeetako artzainei

entzunda haien egoera larriagoa dela nabari da. Horrenbestez, azken urteetan beste herrietan egin ez duten lana gurean egin dugula bistan da. Bigarrena, artzaina bokazioz dela artzain, eta ez aberasteko. Dirua nahi du ardiak zaintzeko, eta ez alderantziz, jendeak pentsatzen duen moduan. Hirugarrena, aurrera egiteko sentitzen den gogoia. Gehienak pesimistak ziren, baina hala ere ez dute etsitzen, eta beren lanbidea nola-hala salbatu nahi dute. Laugarrena, espainiarren etsipena; euren nahia eta ezina. Nahi dute artzaintza altxatu, baina ez dute modurik ikusten. Bosgarrena, laguntzaren ezinbesteko beharra; bakoitzari ordain diezaiotela dagokiona. Seigarrena, elkartzeko nahia eta beharra. Zazpigarrena, Kongresuan parte hartu zuten politikariren babesak sortutako zirrara eta piztu zigan itxaropena. Eta azkenik, atzerrik etorritako artzainek adierazi zuten esker ona egindako harre-beroa gaitik, eta topaketak iraun zuen lau egunetan izan genuen giro ona eta goxoa.



Gazta eta ardoarekin ospatu zuten txikiteroen jaiolearen bederatzurrrena.

AITOR LIZARRALDE

Egubakoitzerako berotzen hasi dira dagoeneko Maritxu Kajoiren deboziodunak

Komisiñuek, Ama Birjina omentzeaz gain, Bittor Amozarrain mendizalearen lorpenak saritu gura izan ditu Enbutua emanaz

J. B.

Txikiteroen zaindariaren bederatzurrrena ospatu zuten Komisiñuek egubakoitzean. Gazta eta ardoarekin, Ama Birjinaren osasunerako topa egin eta, bide batez, datorren egubakoitzeko festarako gertatzen hasi ziren, bai batzordekoak zein hara gerturatutako arrasatearrak ere.

Oleta baserritik ekarritako 30 gazta eta ia 150 Errioxako ardo litroekin egin zioten gorazarre Maritxu Kajoiri. Baina txikiteroen zaindaria ez zen egubakoitzean omendutako bakarra izan. Komisiñuek aspalditik duen ohitura bati jarraituta, aurten ere Enbutuarekin saritu gura izan dute herritar bat. Horrela, Bittor Amozarrain mendigoizalearen

azken lorpena goraiatu du aurten Maritxutako Batzordeak.

OMENDUAK, KALE

Azken uneko gertaerek atzeratu egin dute Enbutu-ematea. Izan ere, omenduak ezin izan zuen egubakoitzean ikurra jaso. Lan kontuak zirela-eta, azken momentuan bertan behera utzi behar izan zuen Komisiñuek Enbutua eskura ematea.

Orain gutxira arte batzordeak Santamasetan ematen zuen sari hori, baina azken urteetan, jai horren antolaketatik kanpo egon denez, ez dute Enbuturik banatu. Aurten, ostera, Maritxu Kajoiren bederatzurrerean egitea erabaki dute, orain gutxira arte egin izan den ohitura horri eusteko.

Ondo merezitako omenaldia

‘Zortzimilako’ baten tontorra zapaltzen duen lehen arrasatearra dugu Bittor Amozarrain eta horregatik Enbutuarekin saritu du Komisiñuek. Iazko uztailean Pakistango Gasherbrum-2 mendia igo zuen Bittorrek Gasteizko lagunekin batera. Himalaya mendikatean dago aipatutako mendia. Guztira, 8.035 metro ditu G-2ak eta Bittor eta lagunek hilabete baino gehiago behar izan zuten tontorrera iristeko, eguraldi txarrak zailduta.



DEIANE ARRIETA

Egubakoitzean notarioa izan zen autobideko lanek botatuko pinuak ikusten.

Administrazioari auzi helegitea jarri diote

A.G.

Administrazioarekiko auzi helegitea aurkeztu duela azaldu zuen egubakoitzean egindako agerraldian autobideak kalte-tutako Eskoriatzako elkarteak. Autopista zatiko 1. zenbakidun aldatutako proiektua deritzonaren aurka jarri dute errekurtsoa. Izan ere, “Bidegik ez du legeak dioena

bete eta, aldatutako proiektu horri dagozkion obrak ez ditu bertan behera laga”. Eskoriatzako Batzordea ez dator bat proiektu horrekin. Moldaketa berriak Zarimutzeko tunela luzatzea eta Mazmelako sarre-rako lubeta eskerge aurrekusten ditu.

Helegite honekin, aldatutako sailtan obrak geldiaraztea nahi du Batzordeak.

• PRESOEN ALDEKO ELKARRETARATZEAK



AITOR LIZARRALDE

SINDIKATUEN BABESA JASO ZUEN ETXERATEK

Hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzeak indartzeko asmoarekin, Etxeratek deituta, sindikatueta ordezkariek ere batu zitzaizkien euskal preso senideei egubakoitzean Arrasaten. “Estatus politikoa orain” ezartzeko eskaerarekin, ELA, LAB eta ESK sindikatueta ordezkariek egon ziren elkarretaratzean. Dei honekin, hileko azken egubakoitzeko elkarretaratzeak indartu eta gizarte eragileei batzeko eskaera zabaldu gura dute Etxeratekoek.



LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA

Begietako mikrokirurgia:

Kataratak: Miopia / Hipermetropia.

Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuak

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79



LEIRE KORTABARRIA

Arno ganadutegiko zekorrek ibili ziren egubakoitzean plazan.



AITOR LIZARRALDE

Oñatiko ostalariek osatu zuten gazta lehiaketako epaimahaia.



AITOR LIZARRALDE

Ehunka oñatiar bildu zen kiroldegian egin zuten herri bazkarian.



AITOR LIZARRALDE

Sei parte-hartzaileen artean, Nestor Altzelairen ardiek irabazi zuten txapelketa.

SAN MIGELAK | ERROSAIXO BIXAMONA OSPATUKO DUTE GAUR, ASTELEHENA

Herri azokarekin, jendez gainezka egon ziren kaleak

Egunik garrantzitsuenetakoa izanda, goizean goizetik jendez gainezka egon ziren Oñatiko kaleak

Jon Bereziabar

Goiztiar ibili ziren zapatuan oñatiarrak. Herri Eguna izanda, gainera, aldarre paregabean jaiki eta giro bikaina izan zuten txantxi-kuek Unibertsitate inguruan goizeko lehenengo orduetatik. Han, 10:30ean hasi zen urtero Nekazarien Elkarteak antolatutako ohi duen ganadu eta barazkien azoka. Mahoizko prakak eta zapia jantzita azoka irekitzerako jendez gainezka egon ziren postuak. Lehiaketa eta erakustaldia, biak antolatzen dituzte San Migeletako Herri Egunean eta aurten ere

maila ona izan da ganadu, barazki eta fruta lehiaketan. Artisauek ere euren tartetxoa izan zuten Unibertsitate barruan. Horiez gain, Oñatiko gaztarik onena ere aukeratu zuten eta aurten, ia aho

Aurten epaileak bat etorri dira Nikolas Seguroalaren gazta onena zela esateko orduan

batez, Nikolas Seguroalena izan da onena epaimahaiaren iritziz. Urtero ez da gertatzen, baina aurten, antolatzaileek aipatutakoaren arabera, berehala erabaki dute epaileek txapelduna.

Behi erakustaldian 38 abelburu ikusi ahal izan ziren, Oñatiko 10 baserritakoak; 14 behor eta zaldi bakarra ere eraman zituzten. Lehiaketan, oster, lau nekazarik hartu zuten parte barazki eta frutetan eta ganaduari dagokionez, sei baserritakoak aurkeztu zituzten.

Aipatu moduan, Unibertsitate inguruak jendez gainezka zeuden, eta berdin gertatu zen herriko plazan ere. Han nahi beste sagardo izan zuten oñatiarrek edateko. Guztira, 22 sagardotegitako kupelak ipini zituzten plazan, guztiak Gipuzkoatik etorritakoak.

ELKARTEEN LAGUNTZAZ

Nekazarienaz gain, herriko gaitarietako elkarteek ere zeresan handia izan zuten Herri Egunean. Izan ere, zapatuan Oñatiko elkarteek bisitari guztientzat atek zabalik izan zituzten eta barruan txorizoa eta ardoa eskaini zieten. Girotzeko motiborik, hortaz, ez zen falta Oñatin. Ohi moduan, trikitilariak ibili ziren herriko kaleak alaitzen eta aurten, horiekin batera, Tolosako gaitariak izan zituzten lagun.

Arratsaldeko ordu bata eta erdietan iragarri zituzten aurten lehiaketako irabazleak eta horren ostean herri bazkaria egin zuten kiroldegian ehunka lagunek. Gazteenek, ordea, Gazte-txean izan zuten bazkaria eta horren ostean txiste kontalariak izan zituzten, zapatua, zegokioenez, festarekin jarraitzeko.

Saridunak

• FRUTAK

1. saria: Felix Azkargorta
2. saria: Joxe Mari Lizarralde
3. saria: Javier Campos

• BARAZKIAK

1. saria: Maria Errasti
2. saria: Joxe Mari Lizarralde
3. saria: Javier Campos

• ARDIAK

1. saria: Nestor Altzelai
2. saria: Javier Sanmiguel
3. saria: Mari Paz Letamendi

• BILDOTSAK

1. saria: Mari Paz Letamendi
2. saria: Javier Sanmiguel
3. saria: Nestor Altzelai

• AHARIAK

1. saria: Javier Sanmiguel
2. saria: Nestor Altzelai
3. saria: Mari Paz Letamendi

• GAZTA

1. saria: Nikolas Seguroala
2. saria: Maximo Zumalde
3. saria: Mari Tere Urtzelai

Albiste izango da

ESKORIATZA | URRIAREN 6AN ERABAKIKO DUTE

Marixol Iparragirren estradizio eskaria eguenean erantzungo dute

Marixol Iparragirre preso eskoriatzarraren estradizioa ukatzearen alde agertu da oraintsu prokuradorea. Toulouseko epailearen aurrera eraman zuten Iparragirre joan zen eguenean. Izan ere, 1985etik 1992ra bitartean hainbat ekintza egitea leporatzen dio Frantziako auzitegiak. Abokatuak argudiatutako preskripzioa onartu zuen prokuradore jeneralak eta bera ere estradizioa ukatzearen alde agertu zen. Iparragirrek tortura salatu zuen epaiketan eta Amaia Urizarren torturen testigantza irakurri zuen. Epaiaketaren erabakia urriaren 6an, eguena, ezagutuko da.

DEBAGOIENA | ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

UGTk etorkinei zuzendutako bulegoa jarriko du Arrasaten

UGT sindikatuak etorkinei zuzendutako zerbitzua jarriko du. Debagoienerako zerbitzua izango da eta Arrasateko UGTren bulegoan egongo da, Garibai kaleko 6 Bis atean. Astelehenetik eguenera bitartean egongo da harrera zerbitzua, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; egubakoitzetan, goizez bakarrik.

Arrasaten jarriko duten etorkinei zuzendutako zerbitzua Gipuzkoan sindikatuak duen bigarrena izango da. Hala ere, Bidasoaldean ere hirugarren bat jartzekotan dira.

UGTren datuen arabera, EAEn 4.000 etorkinek jo zuten sindikatura azkeneko lau urteetan eta horietako 600 lagunek erregularizatzea eskatu dute azkeneko hilabeteetan.

OÑATI | EGUAZTENEAN EGINGO DUTE HILTEGIAN

Kotxe eta traktore karabana egingo dute eguaztenean

Hiltegia Bizirik plataformak auto eta traktore karabana deitu du protesta modura. Irailaren 21ean izan zuten azkeneko batzarra Mankomunitatearekin eta eskualdeko hiltegiak bizi duen egoeraren aurrean, bere etorkizuna ziurtatzeko gutxieneko batzuke adostu zituzten. Gestio plana definitu beharra eskatu du Plataformak eta kudeatzaile independente bat kontratatzea ezinbestekoa dela diote. Horrekin batera, hiltegiaren berrikuntzak lehenbailehen egitea eskatzen dute eta azpikontratutako langileen egoera finkatzea, gutxienez 5 urterako. Mankomunitateak ekainean hartuko du hiltegiaren gaineko erabakia. Bitartean Plataformak protestekin jarraitzeko asmoa erakutsi du eta eguenerako, 16:30ean, karabana deitu dute hiltegitik bertatik aterata.

ESKORIATZA | GAUR HASIKO DIRA

Ludotekan izena ematera animatzeko kanpaina egingo dute

Eskoriatzako Ludotekan matrikulazio kanpaina zabalik dago eta umeek izena eman dezaten bultzatzeko hainbat ekintza antolatuta dituzte ludotekan bertan aste honetarako. Gaur plastilina taillerra egongo da eta bihar, berriz, pastaz eginiko pitxiak egiteko aukera egongo da. Eguaztenean maskarak egingo dituzte eta eguenean askari handia antolatu dute. Ludotekaren astearekin amaitzeko, egubakoitzean, Luis Ezeiza ikastetxeko patioan jolas erraldoiak eta puzgarriak egongo dira arratsaldean. Ekintza guztiak 17:00etan hasiko dira.


BERGARA | EGUENEAN IZANGO DA

Mikologia jardunaldiak antolatu ditu Jardun euskara elkarteak

Bergarako Jardun euskara elkarteak, perretxiko sasoi hasita dagoela eta, mikologia jardunaldiak antolatu ditu. Iaz egin zuten antzeko ekimena eta oso arrakastatsua izan zenez, aurten bigarrenez egingo dute. Eguenean izango da jardunaldien hasiera. Errotalde jauregian perretxikoetan adituak diren Luis Ezenarro eta Jose Mari Larrañaga izango dira hitzaldia egiten. Hitzordua: 17:00.

Bestalde, zapatuan, hilak 8, perretxikotara irteera egingo dute. Batutako piezak sailkatzeko hitzordua ere egin dute ibilaldiaren ostean. Irteeran parte hartu nahi duenak Jardunen bulegoara jo edo 943 76 36 61 zenbakira deitu.

Hitzorduak



EGUZKI-EKLIPSEA IKUSTEKO AUKERA IZANGO DA GAUR, ASTELEHENA | Ilatargi taldeak arriskuak saihesteko gomendioak ematen ditu

Eguzki-eclipse partziala izango da gaur, astelehena. 09:41ean hasi eta 12:23ean bukatuko da, eta bere gehiengoan izango da 10:58ean.

Ilatargiak eguzkiaren %90 estaliko duenez, oso ikusgarria izango da. Hala ere, metodo arriskutsu asko erabiltzen dira eklipseak ikusteko. Ilatargi Astro-

nomia Taldeak gomendatzen du horiek ez erabiltzea. Bi metodo gomendatzen ditu: optiketan saltzen dituzten betaurreko bereziekin edo prisma-tikoekin eguzkiaren irudia kartoi zuri baten proiektatuz. Prisma-tikoak eguzkiari begira jarri behar dira, eta kartoian ikusiko dugu eguzkiaren irudia.

ANTZUOLA |

• 1961-1962an jaiotakoek

kinto afaria egingo dute
1961eko iraila eta 1962ko urria bitartean jaiotakoek batera afaltzeko aukera dute urriaren 15ean. Izena emateko, jo Dina Mujika edo Jabi Fernandezgana.

ARETXABALETA |

• **Yoga ikastaroa antolatu du Aredhana zentroak**
Aredhana Yoga eta Psikoterapia Zentroak yoga ikastaroa ematen du martitzen eta eguenean, 10:00, 17:00 edo 20:00etan, eta garapen pertsonal ikastaroa hilean behin, zapatu goizez. Izena emateko, deitu 616 96 57 95 telefono zenbakira.

ARRASATE |

• **Norbere burua defenditzeko ikastaroa, Ekinen eskutik**
Ekin Emakumeak elkarteak norbere burua defenditzeko ikastaroa emango du urriaren 15etik abenduaren 3ra, zapatuan, 11:00-13:30 ordutegian.

• **Ikastaroak Sanatana Dharma Yoga Eskolan**

Yoga ikastaroak emango dituzte urriaren 10ean hasita, astelehen eta eguaztentean, 09:00-10:30 (Maite, 635 71 06 16) eta martitzen eta eguenean, 18:30-20:00 eta 20:15-21:45 (Ana, 943 78 31 26). Deitu 21:00etatik aurrera.

• **Strip-tease terapeutiko ikastaroa egingo dute**

Strip-tease terapeutiko ikastaroa antolatu du Emakume Txokoak. Urriaren 26an eta azaroaren 2, 23 eta 30ean izango dira saioak. Izenematea zabalik dago Emakume Txokoan (943 79 41 39).

• **Erretiratuen abesbatza sortzeko deialdia egin dute**

Abenduaren 20an6 Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunek osatutako abesbatzen seigarren topaketa dela eta, taldea osatu eta han partehartzeko deia egin dute. Interesatuok jo Abaroaren egoitzara etzi, hilak 5, 19:00etan.

• **1949an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 15ean bazkaria egingo dute Hostalean 1949an jaiotako lagunek. Aurretik meza ere izango dute 12:30ean, San Frantzisko elizan. Izena emateko, jo Lore edo Zabaleta dendetara. Bazkariaren prezioa, 30 euro da.

BERGARA |

• **UNEDen matrikula egiteko epea zabalik dago**
UNED urrutiko unibertsitatean ikasturte berrirako matrikulatzeko aukera dago urrian. 20 ikasketatik gora eskaintzen dituzte aurtien. Argibideetarako, jo Bergarako euren egoi-

tzara, Herriko plazan, edo www.uned.es/ca-bergara webgunera. Telefono zenbakia da 943 76 90 33.

ESKORIATZA |

• **Guraso Eskola eguenean, urriak 6, hasiko da**

Guraso Eskolako lehen jardunaldia egingo dute eguenean, urriak 6, kultura etxean, 18:00etan. *Nerabea ulertzen* da izenburua. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aita-amendako da, baldin eta alde aurretik izena eman baldin badute.

• **Euskarazko jolasen ikastaroetan izenematea**

Euskarazko jolasen ikastaroak antolatu ditu Udalak, eta izenemate epea urriaren 7an bukatuko da.

Alde batetik, 0-4 urte bitarteko jolas eta abestiak irakatsiko dizkiete hezitzaileei.

Beste aldetik, 5-10 urte bitartekoek eta gurasoek batera egiteko moduko ikastaroa ere badago aukeran. Bi ikastaroak hiru egunekoak izango dira. Izenematea kultura etxean egin behar da urriaren 7ra bitartean, eta parte-hartzaile edo familia bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu ikastaroetarako.

Argibide gehiago rako deitu 943 71 46 88 telefono zenbakira.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Arantzetara sartzeko arazoak

Bergararik Elgetarako bidea konpondu zutenetik, hainbat txistu jaso ditugu gure erredakzioan. Oraingoan Arantzetara auzora sartzeko dagoen arriskuaz kexu da gure irakurle bat: "Arantzetatik ateratzeko oso ondo laga dute bidea, baina Elgetatik sartzeko orduan, ez da ikusten Bergara aldetik autorik datorren. Lur zati batek ikustea zailzen du, eta gainera, ez dute ispilurik jarri (lehen bazegoen)".

• Pintadak garbitu eta kaleko bankuak zikindu

Bergarako auzotar batek idatzi digu Seminarioko bankuak zikin-zikin laga zituztelako Udalak kontratatuko pareta garbitzaileek. Dioenez, "Seminarioko hormetan agertu ziren pintadak garbitzen aritu ziren aste barruan Udalak kontratatuko enpresakoak. Kontua da horma garbitzeko erabiltzen duten teknikak hautsa eta lurra ateratzen duela eta azpiko eserleku publikoak zikin-zikin laga dituztela. Hormak garbitzea ondo dago, baina mesedez, zikindutakoa batu!".

• Bidegurutze arriskutsua

Oñatitik Zubillaga auzora bidean, herritik irteteko dagoen azkeneko bidegurutzean auto istripua egon zen. Horren haritik, oñatiar batek deitu digu bidegurutze horren egoeraz kexu. "Auzoak abiada handian heltzen dira bidegurutzera. Herritik ateratzen direnek stopa egin behar dute errepidera ateratzeko. Gidari askok, astia emango dietela-eta, ez dute abiadura gutxitzen eta bidegurutzetik atera nahi duenaren kontra jotzeko arriskua gehitzen dute. Nire ustez, biribilgunea egitea litzateke bidegurutze arriskutsu horrendako irtenbide aproposena, istripu gehiago gerta ez dadin".

Sarean harrapatuta

Zein izango da elizaren etorkizuna?

Seminarioak eta elizak hutsik geratzen ari dira. Izan ere, gaur egungo gazteek ez dute erlijioa bizimodu bezala ikusten eta orain dauden apaiz, moja, fraide eta abarrak zahartzen ari dira. Aita Santu berriaren

aukeraketarekin eliza berriz ere hizpide izan da, baina gure gizartean geroz eta jarraitzaile gutxiago ditu. Zein izango da elizaren etorkizuna? Galdera hori jarri dute *Goiena.net* webgunean.

OKERRAGO GAUDENEAN HASIKO GARA SINISTEN

Nik uste dut oraintxe bertan krisi batean dagoela oso ondo bizi garelako. Baina, egunen batean, krisi batean sartzen bagara berriro jendea elizara joaten hasiko da, besterik ez dagoenean edo zertan sinisten baitu jendeak.

Marijoxe / www.goiena.net

HASIKO DA JENDEA ELIZARA JOATEN

Krisi momentuak datozenean Jesus eta Jesus esaten hasten gara. Horrelako momentuak etortzen direnean hasiko da jende gehiago elizara joaten.

Laskurain / www.goiena.net

PASTAFARIEN ELIZARA JOANGO GARA

Hurrengo krisialdian jendea ez da eliza katolikora hurbilduko, pastafarien elizara baizik. Eta Flying Spaghetti Monster izanango da gurtuko duten jainkoa.

Erljio berri horrek jarraitzaile asko ditu. Informazio gehiago hemen: <http://en.wikipedia.org/wiki/Pastafari>.

Flying / www.goiena.net

KRISI MOMENTUETAN EZ GARA ELIZARA JOANGO

Jendeak honezkero badaki ez dela elizak gatazkarik konpontzen eta krisi momentu bat dagoenean

BADITUGU BESTE ERLIJO BATZUK ERE

Desagertu, ez dakit desagertuko den, baina gure artean gutxiengo duen erlijio bihurtuko dela uste dut. Geroz eta jende gutxiago joaten da elizara eta joaten diren gehienak hildakoren baten aldeko meza edo norbaiten urteurrenako meza delako joaten dira. Gure artean, jendeak geroz eta gutxiago sinisten du erlijioan, kristautasun katolikoan behintzat bai.

Orain beste erlijio mota batzuk ditugu gure artean: moda, futbola... Ez dakit inksizioa bezain kaltegarriak diren, baina kalte handia egingen dute neurritz ez badira erabiltzen.

Lolo / www.goiena.net

ez dio horri begiratu, beste konponbide batzuk bilatzen saiatuko da eta ez da errezatzen hasiko. Oraindik ere ez da desagertuko eta denbora asko pasatuko da. Baina gizarteak zer bide hartu duen ikusita eta elizaren jarrera kontuan hartuta ez ditu jarraitzaile askoz gehiago jasoko.

Mitterrand / www.goiena.net

GAZTEENGANA HURBILDU NAHI DUTE

Nik uste dut eliza konturatu dela bere jarrerarekin ez daukala etorkizunik. Orain, berriz, gazteengana gerturatzeko proiekturen bat daukala esaten dute. Monasterio eta elizetara begiratu besterik ez dago. Batezbesteko adina 68koa da eta gainera lau katu besterik ez dira joaten!

Ateoa / www.goiena.net

ELIZAK INDAR HANDIA DU ORAINDIK ERE

Elizak indar eta eragin handiegia dauka gure gizartean. Horregatik ez dela desagertuko uste dut. Jarraitzaileak badaude eta bestela nonbaitetik aterako dituzte jarraitzaile horiek herri honetako agintariek. Elizak betidanik ezkutatu ditu gobernu ezberdinen hanka sartzek eta kontu ilun asko dakizki. Horregatik, ez dut uste desagertuko denik.

Eliza ez da / www.goiena.net

GAZTEOK EGIN BEHAR DUGU INDARRA

Espero dut ez desagertzea. Fedea edukitzea gauza polita da eta fedea edukiz gero gauza asko beste modu batera ikusten dira. Orain, gazteok egin behar dugu indarra eta mundu hau aldatzen saiatu.

Jon / www.goiena.net

Halaxe erantzun digute

Ceuta eta Melilla hirietan etorkinekin gertatzen ari denaren aurrean, zer egin beharko litzateke



BLANCA RONCAL | PSE-EE LEGEBILTZARKIDEA

Europar Batasunak etorkinen politika bateratua egin beharko luke. Aldi berean, Espainiako Gobernuak Marokorekin negoziatu beharko luke. Herrialdeen garapen bideak eta Europako etorkinen politika integrala landu beharko luke EBk eta Ipar Afrikaren garapenean inplikatu.



ABDOULLAYE GUEYE | ABOKATUA ETA ETORKINA

Jatorrizko herrialdeetatik ihes egiteko arrazoien kontra jotzea da egokiena. Berlingoa bezalako beste herri bat ez da irtenbidea. Marokorekin hitz egin behar da, eta epe luzera garapena landu, gazteek etorkizuna izan dezaten jatorrizko herrialdeetan. Goseak ez daki legez, ezta hesiez ere.



XABIER AZKOITIA | CARITAS

Lehenengo kontzientzia hartu. Mundu aberatsak sarearen atzean laga nahi ditu bisitatzea gustoko ditugun pertsonak eta herrialdeak. Bigarren, kapitalaren mugimendua defendatzen dugun legez, pertsonen mugimendua ere onartzea; fluxua kontrolatuz, baina atzeritarren legea aldatuz.



DABID LAZKANOITURBURU | NAZIOARTEKO KAZETARIA

Etorkinak gizaseme bezala tratatu. Arazo humanitarioa arinduta, EBk ezin ditu giza-eskubideak urratu, tartean asilo politikoa. Asilo ekonomikoari buruz, Mendebaldeak Afrika txiroa behar du. Baina ez gaitetzen fatalismoan erori; haientzat beste mundu bat posible ez bada, guretzat ere ez.

Egunkarietako harribitxiak

MOTOEN SALMENTAK GORA EGIN DU

Autoen gidabaimena motoa gidatzeko baimendu izanak motoen salmenta igo du azkeneko urtean Gipuzkoan. Gobernuaren asmoa zen, besteak beste, hiriguneetan auto gutxiago ibiltzea. Datuei erreparatu gero, urtarril eta abuztu bitartean 2.437 moto matrikulatu dira Gipuzkoan, 2004ko bikoitza.

'El Diario Vasco'
2005-10-02



PREKARITATEAREN GELTOKITIK PARTITU NAHIAN


Azken hilabeteetan Frantziako Gobernuak egindako politika salatzen eta aldaketak eskatzeko bihar, astearte, mobilizazio eguna izango da Ipar Euskal herrian eta Frantzian, sektore pribatua, zein publikoa. Gobernuaren azken erabaki ekonomikoek haserrea piztu dute sindikatuen eta ezkerreko alderdien artean. Sindikatuek eskatzen dute agorrilean

martxan jarri zen kontratu berria kentzea. Kontratu berri horrekin langilearen lehenengo bi urteak entsegu moduan dira. Langabeen kalte-ordainak jasotzeko arauak ere zorroztu egin dituzte. Zerbitzu publikoei, osasungintzari, hezkuntzari eta ikerketari ere eragiten die Gobernuaren erabakiak. Iparraldeko mobilizazioak Baionan izango dira.

'Berria'
2005-10-02



Tira, tira...



Maximo 'El País' | 2005-X-02

Egunkarietan irakurri dugu

'Berria'

UREPELEKO ERTZAINA

Euskarak zorroztu ditu ertzainei buruzko ziriak ere: zipaio, txapelgorri... baina aurkikunderik bitxieta Leteren kantuan oinarritutako *Urepeleko ertzaina*, Iñaki Peñaren blogean ikusi nuen orain gutxi. Otu zitzaidan Bilbo-ko manifestazioa zaindu zutenak Urepeleko ertzainak izango zirela, Urberuagakoak, berriz, Donostiakoak galarazi zutenak.

Anjel Lertxundi
2005-10-02

'Gara'

ENPRESARIAK ETA LAN ERREALITATEA

Neoliberalismoaren nagusitasuna agerian dago eta berari zor zaio exekutibo autonomikoetatik errepikatzen diguten arkadia zoriontsuaren irudia. Irudi hori indargabetzea benetako gizarte eta lan errealitatearekin, Euskal Herri progresista planteatzen duten sektoreen lana da, non enpresarienginkizuna ez den hegemonikoa izango.

Editoriala
2005-10-02

'El Mundo'

ZAPATERO ETA EZINEZKO OREKA

Estatutu berriaren arazoa da: Konstituzioak ezarritakoa baino haratago joan direla eragileak eta margotu dutela Kataluniarako marko juridiko berria; Karta Magnarekin batearazina. Sarrerak aipatzen du kataluniarrek euren etorkizuna erabakitzeko duten borondatea. Egia dena da, testuak apurtu egiten duela gaur egungo Estatu eredu.

Editoriala
2005-10-02

'Deia'

ALKOHOLA, GAUA ETA BIOLENTZIA

Kontua ez da euren ekintzengatik errudun direnak baino kulpadun gehiago aurkitzea; ezta errua komunitate jakin bati leporatzea ere. Baina garbi dago irtenbideak aurkitzen hasteko garaia dela, beranduegi izan baino lehen. Irtenbideok, dena den, ez dira mugatu behar esku gogorrera; hezkuntza, integrazioa... kontuan hartu beharko dira.

Editoriala
2005-10-02

Zorroztailea



Berben ostean

...aspaldian egunkaria hizkuntza bat bereganatzen ari da, hainbat talde eta mugimendu sozial alde aurretik deskalifikatzen dituena. Oraingoan kontua ez da bakarrik inmigrante "olatuek" gure mugak "erasotzen" dituztela. Orain langile korsikarrek untziak "bahitzen" dituzte! Eta zer eskatu dute, bada, bahituaren truke? Transatlantiko bat? A, ez. Lanpostuari eustea.

J.M. Deop
'El País' | 2005-09-30

Gerardo Markuleta

Ideia hau Hollywoordera bidean jarri zaigun *Obabaren* sortzaileari entzun izan diot behin baino gehiagotan. Begira zeinen polita: hitzek eta xaboiak elkarren kontrako portaera dute. Esan nahi baita, xaboiaren kasuan, zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta txikiago xaboi-puska; berbak, ordea, zenbat eta gehiago erabili, are eta sendoago, hedatuago eta aberatsago....

"Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen" dio euskal esatera zahar ezagun batek, baina hitzek eta harriek ere ez dute portaera bera. Hitzari, ibili eta ibilita, goroldioz landa, "gain" eta "azpi" esaneko ugari josten zaizkio.

Eta "aurkitzea" eta "topo" egitea gauza bera ez direnez gero, eta inork ezereza apurtu duen ala ez ziur ez dakienez, hitz egitea da, hotzaren hariak gurutzatuz, isil-

tasuna zuloz estaltzeko edredoiak ehuntzea. Zeinek dauka, bada, bere lanaz berbek baino segurtasun txikiagorik?

Horregatik irristatzen dira, nagi, ate azpitik; edo bat batean agertzen kajoirik urrutikoenean; edo izkintan etzanda, poltsa gorri batekin, gure zain; edo egun guztiak laburbiltzen dituen inbututik sortzen, okasiorako bereziki orraztuak. Hitz bakoitzean bada eskuek enborretan jotakoaren oihartzuna, ildoen eta ahots korden arteko hari eta zubiak, atzamarren ezintasunerainoko luzapena. Zeinek dauka, bada, hitzek baino soldata urriagorik? Berba bat butaka edo habaila izan daitekeelako, baina beti ere hondartza itxurari utsirik. Baina isiltasuna eraikitzen duten hots guztien orpotik, bere orratzak izotzez albainutzen, bada berba bat gure zain, behin edo behin "bizi-poz" izan ohi den hitza.

"Ideia hau Hollywoordera bidean jarri zaigun *Obabaren* sortzaileari entzun izan diot behin baino gehiagotan"

"Hitzek eta xaboiak elkarren kontrako portaera dute: xaboiak zenbat eta gehiago erabili, puxka txikiagoa; berbak, aldiz, sendoago"

KIROLA

- Bengoetxea-Errauskin eta Tellaetxea-Galarraga nagusitu dira Oñatin | 18
- Mugarri Alkesak 86-74 emaitzarekin irabazi zion Lizarrako taldeari | 16



Xabier Lekue
Antxintxika taldeko
kideak munduko
Iron Man proba
jokatuko du | 19

FUTBOLEKO PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

1-1

ZESTOA

Aloña Mendi | Elgarresta, Jon, Astola, Unai (Arregi II, 81. min.), Zubia, Jagoba, Arregi I (Iker, 67. min.), Aitor, Julen, Camino (Iker, 88. min.) eta Aritz (Roberto, 30. min.).

Zestoa | Hector, Aitor (Moxi, 45. min.), Iñigo, Igor, Ander, Ibon, Igor (Jagoba, 77. min.), Jon, Aritz (Maicon, 27. min.), Gorka eta Iñigo.

Golak | 0-1 Gorka (10. min.), 1-1 Camino (25. min.).

Epailea | Iker Perez jauna. Txarto aritu zen eta jendeak txistuka agurtu zuen.

Bestelakoak | Oñatin Herri Eguna zela eta, jende gutxi inguratu zen Azkoagain futbol zelaira.

Bikain

Astola

Indartsu atera zen Aloñako jokalaria zelaira. Defentsan lan ona egin zuen eta baloia ongi mugitu zuen zelaiaren alde batetik bestera. Bereak izan ziren jokaldi onenak.

Kaskar

Epailea

Hamargarren minuturako Aloña jokalaria bat gutxiagorekin utzi zuen. Txartelak ateratzeko orduan ez zen fin aritu; burua beste nonbait zuen. Bi taldeetakoak kexatu ziren.

Esandakoak

“Epailea gaizki aritu da. Ez dago eskubiderik taldeak aste osoan egindako lana horrela zapuzteko”.

AITOR ORUETA | ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

“Hamargarren minuturako jokalaria bat galdu eta gero, behera etorri beharrean, amorrughiagorekin jokatu dugu”.

JULEN BARRENA | ALOÑAKO JOKALARIA



Aloña, jokalaria bat gutxiagorekin jokatu arren, gogor aritu zen zelaiaren.

FUTBOLA | JENDE GUTXI EGON ZEN PARTIDUA IKUSTEN

Aloñak banako berdinketa lortu zuen Zestoaren aurka

Aloñak neurketa aurrera ateratzea lortu zuen, ia partidu guztia jokalaria bat gutxiagorekin aritu arren. Azkenean, banako berdinketa

Arantzazu Ezkibel

Aloñarentzat partidua gaizki hasi zen arren, banako berdinketa lortu zuen talde oñatiarrak zapatu arratsaldean.

Partidua hasi bezain laster, epaileak Jagoba kaleratu zuen area ertzean eginiko falta bategatik. Ikusleak ez zeuden batere ados epailearen erabakiaz eta gogor aritu ziren haren aurka.

Aloña hamar jokalarirekin geratu arren, aurrera atera zen eta Zestoak baino joko hobea egi-

tea lortu zuen. Oñatiarren defentsa oso ondo aritu zen. Ez zuten inongo arazorik izan eta ondo jokatuz baloia atzealdetik ateratzea lortu zuten.

Lehenengo zatian, aukera politak egon ziren bi aldeendako. 25. minutuan, Caminok Aloñaren gola egitea lortu zuen. Atzetik hasitako jokaldi on bat izan zen. Horrela, partidua berdintzea lortu zuen Aloñak.

Bigarren zatia nahasiagoa izan zen. Bi taldeak bigarren golaren bila atera ziren eta auke-

ra onak ikusi ziren. 30. minutuan, epaileak Zestoako jokalaria bati bigarren txartel horia atera zion. Baina Aloñako jokalaria izan ziren epaileari bigarren txartela zela ohartarazi ziotenak. Azke-

nean, epailea egindakoaz jabetu zen eta Zestoako jokalaria kaleratu egin zuen. Beraz, partiduko azken 15 minutuetan bi taldeek hamar jokalarirekin jardun zuten.

Aloñak aukera ona izan zuen bigarren gola lortzeko. Zelai erditik egindako pase batean, Robertok baloia zutoinera bota zuen. Partiduko azken minutuan ere, beste aukera bat izan zuen Robertok, baina baloia ez zen sareetan sartu.

Epaileak 6 minutu gehitu zizkion partiduari. Azkenean, partidua banako berdinketarekin bukatu zen. Aloñako entrenatzailea ez zegoen epailearen lanarekin ados. Aitor Oruetaren ustez, epailearen erabakiak kaltegarriak izan ziren bere taldearentzat.

Partidua hasi bezain laster, epaileak Jagoba kaleratu zuen

Bigarren gola sartzeko aukera izan zuen Aloñak, baina baloia zutoina jo zuen

AITOR LIZARRALDE

PREFERENTE MAILA



ARTXIBOA

Norgehiagokaren lehen zatian egin zituen Mondrak bi golak.

Erraz lortu zuten garaipena arrasatearrak Lesakan

BETI GAZTE

0-2

MONDRA

Beti Gazte | Fernando, Iñigo, Javier, Xabier (Jon Andoni), Jon, Eneko (Jon), Beñat (Juan), Imanol, Beñat (Mikel), Andoni (Joseba) eta Asier.

Mondra | Oier, Markel (Kepa), Kepa, Aitor, Iker, Ruben, Jon (Iban), Gotzon (Arkaitz), Julen (Ekain), Illart (Jon) eta Iker.

Golak: 0-1 Iker Lopez (15. min.), 0-2 Julen Garmendia (30. min.)

Epailea: Jon Etxarri jauna. Lan kaxkarra egin zuen. Sei txartel atera zizkien Mondrakoei. Lesakarren entrenatzailea eta atezaina kanporatu zituen.

Asteleheneko Goienkaria

Lesakan lortu du Mondrak denboraldiko laugarren garaipena. Etxeko taldea baina hobeto mugitu ziren zelaian Igor Gordobilek zuzentzen dituen mutilak.

Lehenengo zatian Mondra oso gainetik ibili zen. Joko askoz ere hobetago erakutsi zuen eta erraz kontrolatu zituen Beti Gazte taldeko mutilen jokaldiak. Defentsa lan ona egin zuten eta erasoan ere txukun aritu ziren.

Lehen zatian egin zituen Mondrak norgehiagokaren bi golak. Iker Lopezek estreinatu zuen markagailua. Bigarren gola Julen Garmendiak sartu zuen. Emaitza lasaigarri honekin erretiratu ziren atsedendaldian aldagelara.

ISTILUAK BIGARREN ZATIAN

Bigarren zatian ez zen golik ikus-teko aukerarik izan. Hori bai, istilurik ez zen falta izan.

Epaileak Iker Lopez kanporatu zuen 60. minutuan. Bi sarrera adierazi zizkion jokalaririk arrasatearrari eta kalera bidali zuen txartel gorria erakutsita. Mondrak hamar jokalarirekin egin zituen bigarren zatiko 35 minutu.

Lesakarren ez zuten abantaila horri etekina ateratzen asmatu eta laster gelditu ziren beraiek ere hamar jokalarirekin. Epaileak atezaina kanporatu zuen baita entrenatzailea bera ere. Behar baino gehiago haserretu ziren epailearekin eta kanporatu egin zituen. Mondrak Idiazabalen aurka jokatu du datorren astean.

Aukera gehiago sortu arren, bi gol egin zituzten

ORIOKO

2-2

ARETXABALETA

Asteleheneko Goienkaria

Goizez bakarrik gozatu zuten Kilo-metroen eguna UDAko mutilek. Zapatu goizean jokatu nahi zuten norgehiagoka baina Orioko taldeak ez zuen aldaketa onartu.

Gauzak horrela, berdinketarekin itzuli ziren etxera Aretxabaletakoak. Lehenengo zatian zelai erdiko jokoa nagusitu zen eta ondo kontrolatu zuten baloia UDAkoek. Lehen gola, baina, Oriokoek egin zuten. Berehala, minutu batera, lortu zuten berdintzea Aretxabaletakoek Aritzen bidez.

Bigarren zatia hasi bezain laster sartu zuten 2. gola etxeok. UDAkoek aurrera egin zuten, baita aukera garbiak sortu ere. Berdinketaren gola Oruetak egin zuen amaierarako 20 minutu faltan zirenean.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK

Pasaia-Touring	4-1
Orioko-UDA	2-2
Aloña Mendi-Zestoa	1-1
Idiazabal-Allerru	3-0
Beti Gazte-Mondra	0-2
Mutriku-Berio	2-1
Ordizia-Irun 1902	2-0
Zarautz-Anaitasuna	1-0
Hernani-Hondarribia	0-1
Real Union-Trintxerpe	2-0

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Ordizia	13	5	4	0	1	9	3
2. Mondra	12	5	4	1	0	12	6
3. Real Union	12	5	4	1	0	8	3
4. Pasaia	11	5	3	0	2	9	4
5. Aretxabaleta	10	5	3	1	1	10	5
6. Zarautz	9	5	3	2	0	9	3
7. Mutriku	9	5	3	2	0	9	7
8. Trintxerpe	8	5	2	1	2	5	4
9. Berio	8	5	2	1	2	8	4
10. Hondarribia	8	5	2	1	2	5	4
11. Aloña Mendi	7	5	2	2	1	8	9
12. Touring	7	5	2	2	1	10	7
13. Idiazabal	6	5	1	1	3	6	5
14. Zestoa	5	5	1	2	2	3	4
15. Beti Gazte	4	5	1	3	1	4	7
16. Hernani	4	5	1	3	1	4	10
17. Orioko	2	5	0	3	2	8	17
18. Anaitasuna	1	5	0	4	1	2	8
19. Allerru	1	5	0	4	1	1	10
20. Irun 1902	1	3	0	4	1	3	13

HURRENGOAK

Touring-Real Union
Aretxabaleta-Pasaia
Zestoa-Orioko
Allerru-Aloña Mendi
Mondra-Idiazabal
Berio-Beti Gazte
Irun 1902-Mutriku
Anaitasuna-Ordizia
Hondarribia-Zarautz
Trintxerpe-Hernani

Lehenengo Erregionala

Bergara erraz nagusitu zitzaion Debako taldeari

BERGARA

2-0

AMAIAK BAT

“Bergara gehiago izan da norgehiagoka honetan”, esan digu Eloi Crespo jokalaririk. “Indarrarekin bakarrik etorri dira eta guk joko maila hobea erakutsi dugu”.

Norgehiagoka hasi eta gutxira egin zuen lehen gola Bergarak. Unai Agirrek gauzatu zuen lehen tanto hau eta taldeari lasaitasun handia ekarri zion.

“Goletik aurrera hobeto jokatu dugu”, adierazi digu Josu Zubia entrenatzailea. “Baloia gehiago ukitu dugu. Ondo jokatu dugu eta aukerak sortzen asmatu dugu”.

Bigarren gola ere egin zuen Bergarak. Jon Urteagak sartu zuen jardunaldiko azkena.

JOKALARI BERRI UGARI

Josu Zubiak gidatzen duen taldea jokalaririk berriek osatzen dute gehien bat. Amaiak bat taldearen aurka gailendu izana ez da lortzen kaxkarra, kontuan hartuta Debakoa jokalaririk beterranoekin osatutako taldea dela.

“Sei-zazpi jokalaririk errepikatu dute aurten”, esan digu Josu Zubiak. “Gainerakoak gazte mailatik igotakoak eta Arrasatetik etorritakoak dira”.



AITOR LIZARRALDE

Jardunaldiko bi golak Bergarak sartu zituen.

Asteleheneko Goienkaria

Josu Zubiaren mutilek ez zuten partidu hasiera erraza izan. Kostaldeko taldea baloi eta jokaldi luzeko jokorekin etorri zen Bergarara eta etxeok lanak izan zituzten lehen minutuetan.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Aurkariak gol gehiago sartu zituen azken minutuetan

Norgehiagoka oso berdindua izan zen. Azken txanpan gehiago izan ziren Ormaiztegiakoak



Etxekoek ez zuten azken minutuetako jaurtiketetan golak sartzea lortu.

AGR ARRASATE

23-26

ORMAIZTEGI

Arrasate | Igor Egaña, Asier Valle, Jonan Esquibel (1), Eneko Garcia (1), Aitor Garcia (2), Ruben Espeso, Oier Ortiz de M., Iker Murillo, Jon Lonbide (3), Nestor Calleja (7), Xabier Alcelay, Kepa Isasmendi (5), Iker Otegi (4) eta Manu Carrasco.

Ormaiztegi | Haritz, Iñaki (5), Iker (3), Imanol (5), Aitor (6), Aitor O. (3), Xabier (2), Eneko, Iñigo, Mikel (1), Aitor, Gorka (1).

Golak: Lehen zatiaren amaieran 16-14.

Larraitz Zeberio

“Aspalditik ezagutzen dugun taldea da Ormaiztegi eta oso berdintsu ibiltzen garen bi talde gara. Gaurkoan ez dugu garaipena lortu”. Andoni Arando AGR Arrasate taldeko entrenatzailearen hitzak dira zapatuko norgehiagoka amaitu bezain laster. Gogor saiatu ziren Arrasateko-

ak, baina ez zuten garaipena lortzerik izan. Azken hamar minutuetan lortu zuten Ormaiztegi-koek markagailuan nagusitzea.

“Argi daukat aurten lehen territorialean partiduak irabaztea oso zaila izango dela. Parean gabiltza talde guztiak”. Ezin besterik esan zapatuko norgehiagoka ikusita. Lehen zatiaren amaieran Arrasatekoak ziren aurretik.

Partidua amaitzeko hamar minutu falta zirenean 22-22 emaitza jasotzen zuen markagailuak.

BUKAERA GOGORRA

Azken hamar minutuetan egin zuen partiduak Ormaiztegiaren alde. Ate aurrean etxeok ez zuten zorte handirik izan eta kanpora joan ziren berebiziko garrantzia zuten jaurtiketak.

Ormaiztegiakoak hobeto aritu ziren azken txanpa honetan. Asmatu egin zuten Arrasatekoen defentsan zuloak topatzen eta jaurtiketetan ere etxeok baino finago ibili ziren.

Azkenean, Ormaiztegi eraman zuen garaipena Iturripen; baina edozeinek lortu zezakeen, norgehiagoka oso lehiatua izan zen-eta.

• SENIOR MAILA

Bergarak 20-16 galdu zuen atzo

Arantzazu Ezkibel

Bergarak txarto hasi zuen liga domeka goizean Elgoibarren aurka. Talde mahoneroak 20 eta 16 galdu zuen.

Partidua nahiko berdindua izan zen. Hasieran galtzen hasi ziren arren, bigarren zatian partidua berdintzea lortu zuten bergarrek eta baita aurretik jarzteza ere. Hala ere, azkenean, ez zuten lortu gol bateko abantaila horri eustea eta galdu egin zuten.

DEFENTSA GOGORRA

Bergarako entrenatzailearen ustez, taldeak ondo jokatu zuen. Defentsa gogorra egin zuten, bai-

na aurrealdera joatean, jaurtiketa asko huts egin zituzten.

Partiduko azken 15 minutuetan joan zitzairen, beraz, partidua bergarrei. Jaurtiketa asko huts egin zituzten eta Elgoibarko jokalariek, berriz, ez zuten aukerarik galdu. Azkenean 4 goleko aldea atera zion Elgoibarrek Bergarako taldeari.

Bergarako taldeak sartu zituen 16 goletatik 6 Mikel Plazaolak sartu zituen. Aipagarria da bergar gazteak egindako jokoa.

Datorren asteko partiduari begira daude dagoeneko bergarrek. Ilusio handia dute hasi berria den ligan, joko polita egin eta aurrean egoteko.



Bergarako jokalariek jaurtiketa asko huts egin zituzten

• GAZTE NESKAK

Aloñak liga garaipenarekin hasi du: 16-28

A.G.

Aloñako neskek bikain hasi dute liga. Zapatu goizean, Zumaiaiko Pulpo taldearen aurka 16-28 irabazi zuten. Partidu guztian zehar aurretik joan ziren onatiarrak eta ez zuten arazorik izan bi puntuak etxera ekartzeko.

Aipatzekoa da Aloñakoek partidua aurrera ateratzeko erakutsi zuten gogoia.

• GAZTE NESKAK

Gaizki hasi dute liga Bergarrek

A.G.

Talde Bergarrek etxean 18-23 galdu zuen Ehariaderen aurka.

Lehenengo zatian nahiko eskas jokatu zuten bergarrek eta denbora guztian atzetik ibili ziren. Bigarrenen joko politagoa egitea lortu zuten. Baina hala ere, ez ziren markagailuari buelta emateko gai izan eta galdu egin zuten.

• GAZTE NESKAK

Arrasatek ezin izan zuen Zarautzekin

A.G.

Arrasateko eskubaloiko neskek ligako lehen partidua 3-38 galdu zuten etxean.

Zarauztarrek talde sendagoa atera zuten. Joko oso ona egin zuten eta ez zuten inolako arazorik izan partidua irabazteko. Arrasateko neskek 3 gol besterik ez zituzten egin. Baina liga hasi besterik ez da egin eta hobetzeko asmoa dute.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN TERRITORIALA

Elgoibar - Bergara	20-16
Arrasate - Ormaiztegi	23-26
Arrikrutz - Hondarribia	atzeratua

GAZTE MAILAKO NESKAK

Arrasate - Zarautz	03-37
Bergara - Ehariadea	19-23
Pulpo - Verkol Aloña	atzeratua

KADETE MAILAKO NESKAK

Verkol-Aloña - Zarautz	atzeratua
------------------------	-----------

LANDER JUARISTI

• LEHENENGO MAILA

Erraz irabazi zuten atzo Arrasatekoek

Lizarrako Legarzia taldeak baino joko txukunagoa egin zuten Mugarri Alkesakoek. Hiru puntuko saskiratze politikak egin zituzten

MUGARRI ALKESA

86-74

LEGARZIA

Mugarri Alkesa | Gamarra, Domingo, Mallabiabarrena, Mikel Biain, Barberena, Herzog, Quintana, Hernandez, Alarcia, Aranburu, Biain (14) eta Isasa.

Legarzia | Labayru, Oier, Aramendia, Bonete, Corvo, Juaniz, Vicente, Arana, Miguel, Cia eta Corvo.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 19-16. Bigarren laurdena 42-36. Hirugarren laurdena 69-51. Laugarren laurdena 86-74.

Larraitz Zeberio

Ezin hobeto eman diote hasiera denboraldi berriari Mugarri Alkesako mutilek.

Asteburu honetan etxean jokatu dute, kilometroen egunean, gainera. Aurrez aurre izan zuten Legarzia talde nafarrak baino joko garbiagoa erakutsi zuten norgehiagoka guztian

zehar eta merezitako garaipena eskuratu dutela esan gabe doa.

Ondo aritu ziren bai erasoan bai defentsan. Lizarrako taldeak eutsi egin zion arrasatearren erritmoari lehen bi laurdenetan, baina hirugarrenerako galduta-tako tartea 18 puntukoa zen.

BIGARREN LAURDENA GOGORRENA

Bigarren laurdenaren hasieran ikusi genuen Lizarrako taldeak emateko zuen onena. Nahiz eta uneoro atzetik joan, markagailua berdintzera iritsi ziren pare bat aldiz. Minutu gogorrenak izan ziren Arrasatekoendako. Azken minutuetan, baina, berriz ere alde nabaria ezartzea lortu zuten etxekoek. Nafarrek ez zuten saskiratzea lortzen eta ikusteko modukoak izan ziren zati honetan Quintana, Hernandez eta Gamarraren hiruko saskiratzeak.

NAGUSI BUKAERARAINO

Azken bi laurdenetan Mugarri Alkesakoak jaun eta jabe izan ziren Iturripeko kantxan. Sei puntuko alde 18ra zabaldu zuten, tartean Legarziakoek egindako



Arrasatearrak ondo aritu ziren, bai erasoan bai defentsan.

falta etengabeei esker. Lasaitasunez jokatzen ikusi genituen arrasatearrak handik aurrera. Bikain aritu ziren Quintana eta Gamarra hiruko saskiratzeetan. Laugarren laurdenean, markagailuko tartea handitu egin zen, 20 puntura iritsi arte zenbait minutuz. 73-53 emaitza agertu zen markagailuan tartetorretan. Orduan, jokalariei berriei kantxan

minutu batzuk ematea erabaki zuten taldeko entrenatzaileak.

Nafarrek akats gehiegi egin zituzten defentsan azken minutuetan eta jaurtiketa asko oparitu zizkieten etxekoei. Arrasatearrek ez zituzten denak aprobe txatu. Azken emaitzako hamabi puntuko tartea handiagoa izan zitekeen aukera horiei guztiei etekina ateraz gero.

Eskoriatzak galdu egin zuten etxean

ESKORIATZA

36-76

BERA BERA

Arrasate | Ixone, Inma, Yaiza, Olatz, Aitziber, Ainhoa, Andrea, Ane, Nerea eta Maite.

Bera Bera | Rodriguez, Quero, Garitaonandia, Onaindia, Carreta, Estork, Arkarazo, Amesti, Unamunzabala, Gonzalez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 5-22. Bigarren laurdena 12-23. Hirugarren laurdena 10-11. Laugarren laurdena 9-20.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzako taldeak ezin izan zuten Donostiako Bera Beraren aurka. Zapatu arratsaldean 36-76 galdu zuten eskoriatzarrek etxean.

Talde donostiarra indartsu kantxaratu zen eta lehenengo laurdeneko alde handia atera zion etxeko taldeari. 5-22 bukatu zen lehen laurdena. Eskoriatzako taldea ez zen gustura sentitzen kantxan.

Zaila egin zitzaion eskoriatzarrei lehenengo laurdenean galdutako aldeari aurre egitea. Partidu guztian atzetik aritu ziren eta ezin izan zioten markagailuari buelta eman.



Partidu guztian atzetik joan zen etxeko taldea.

HIRUGARREN LAURDENA ONA

Lehenengo eta bigarren laurdenetan alde handia atera bazion ere Bera Berak etxeko taldeari, hirugarrenean gauzak txukuntzea lortu zuten. 10-11ko marka-

gailua egin zuten. Hala eta guztiz ere, ez ziren partiduari buelta emateko gauza izan eskoriatzarrek.

Eskoriatzak bi partidu jokatu ditu ligan eta biak galdu.

• GAZTE MAILA

2. garaipena Mugarri Alkesa taldearendako

A.G.

Easo B taldearen aurka jokatu dute asteburuan Mugarri Alkesako gazte mailako mutilek. Denboraldiko bigarren garaipena lortu dute arrasatearrek 71-58 emaitzarekin.

Partidu ona egin zuten etxekoek, hasieratik hartu zuten eta mendean talde donostiarra. Lehen bi laurdenetan markagailuari eustea lortu zuen aurkariak eta atsedenerako sei puntuko tartea zuten alde Arrasateko taldeak.

AMAIERAN BOROBILDU

Laugarren laurdenean lortu zuten etxeko taldeak markagailuak erakusten duen nagusitasuna. Defentsa ona eta kontraeraso azkarrak egin zituzten 13 puntuko alde lortu arte.

• KADETE MAILA

Arrasatearrak garaile, bergararrak ez

A.G.

Mugarri Alkesako mutilak garaipenarekin itzuli dira Donostiatik Gros Xake taldearen aurka 41-49 emaitza lortuta. Ez zen partidu erraza izan eta gogor saiatu ziren debagoiendarrak. Errebotean, ordea, argi ibili ziren eta denboraldiko bigarren garaipena lortu dute.

BERGARAKO NESKEK GALDU EGIN ZUTEN

Erraz irabazi zuten norgehiagoka Azpeititik etorritako Ipar Project taldeko neskek. Bergararrek ezer gutxi egin ahal izan zuten Euskadiko txapel-dunen aurka. Bigarren laurdenaren amaierarako 25 puntuko alde zuten eta partidua 38-68 emaitzarekin amaitu zen.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa-Legarzia 86-74

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Bera Bera 36-76

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Mugarri Alkesa-Easo B 71-58

KADETE MAILAKO MUTILAK

Gros Xake-Mugarri Alkesa 41-49

KADETE MAILAKO NESKAK

Bergara-Ipar Project 38-68

Pilota

• PROFESIONALAK

Gonzalez eta Apeztegiak 22-20 irabazi zuten


Bergarako udal pilotalekura profesional mailako partidua ikustera jende gutxi joan zen

Arantzazu Ezkibel

Gonzalezek eta Apeztegiak, gorritz, Xala eta Nadal III.ari, urdinez, 22-20 irabazi zieten domeka arratsaldean Bergarako pilotalekuan jokaturako profesional mailako partiduan.

Partidua oso berdindua izan zen. Xala eta Nadal III.ak atera zuten lehen sarea. Partidua hasieratik gorrien alde jarri zen, baina aldea ez zen oso handia. Gonzalez eta Apeztegia iritsi ziren 11. tantora lehenengo. Xala eta Nadal III.ak berdintzea lortu zuten eta 12-13 aurreratu ziren. Baina gorriak berriro ere aurreratu ziren eta 21-16ra iristea lortu zuten. Partidua amaitu behar zela ematen zuten. Gonzalezek bere azken sarea egin zuen jendearen txalo artean. Baina urdinek oraindik beste lau tanto egitea lortu zuten. Xalak dejadaz egin zuen tantoa asko txalotu zuten. Partidu ona egin zuen iparraldeko pilotariak.

Azkenean, Gonzalez eta Apeztegia 22-20 nagusitu ziren Xala eta Nadal III.aren aurka.



AITOR LIZARRALDE

Xalak dejadaz tanto politak lortu zituen.

BESTE BI PARTIDU ERE JOKATU ZIREN

Elkoro eta Chafee Eugi eta Galarza VI.ari erraz nagusitu zitzaizkien domekan jokaturako lehen

partiduan; 7-22. Hirugarren partidua 18 tantotara izan zen. Larralde eta Auxkin 18-15 nagusitu zitzaizkien Berasaluze IX. ari eta Arizmendiri.

Areto futbola

Eskoriatza B taldeak 2-3 galdu zuen zapatuan gasteiztarren aurka

Bukaerarako bi minuturen faltan lortu zuen La Parrilla taldeak 3. gola

Larraitz Zeberio

Erritmo oso biziarekin eman zioten hasiera norgehiagokari eskoriatzarrek. Lasaiago aritu ziren Gasteiztik etorritako La Parrilla taldekoak. Baloia gehiago ukituz eta kontrolatuz.

Kanpokoek estreinatu zuten markagailua 18. minutuan. Bigarren gola jarraian egin zuten. Sergio Alvaro jokalaria gasteiztarra bakarrik iritsi zen ate aurrera eta ez zuen tiroan hutsik egin.

Eskoriatzarrak gogor saiatu ziren markagailuari buelta ematen, baina defentsa akatsak uga-

riak izan ziren partiduaren lehen zatian. Aipatzekoak dira Igor Etxenagusia atezainak behin baino gehiagotan egindako geldialdiak.

Lehen zatia amaitzeko 4 minutu falta zirenean lortu zuen Eskoriatza B taldeak lehen gola. Falta adierazi zuen etxekoan alde arbitroak eta Iban Roak ez zuen jaurtiketa huts egin.

BIGAREN ZATIAN HOBETO

Hobeto jokatu zuten partiduaren bigarren zatian etxekoek. Joko argiagoa erakutsi zuten eta lasaigoa. Lastima izan ziren atera huts egindako jaurtiketak.

Amaierarako lau minuturen faltan lortu zuten markagailua berdintzea Eskoriatzakoek. Sergio Soutoren pase bati esker Emilio Gomezek egin zuen gola. Gutxi iraun zuen lasaitasunak etxekoendako. Gasteiztarrek gogor jo zuten eraso eta 2 minuturen faltan baloia belau artean gelditu zitzaion atezainari. Gola izan zen.



AITOR LIZARRALDE

Aukerak sortu zituzten baina ez ziren jaurtiketetan fin ibili.

• MIKEL DEUNAREN PILOTA FINALAK OÑATIN

BENGOETXEA ETA ERAUSKIN NAGUSITU ZIREN TXAPELKETAN

Partidu berdindua izan zen, baina azkenean Bengoetxea eta Erauskinen eraman zuten Oñatiko txapela etxera 22-19 emaitzarekin.

Bengoetxea leitzarrak laster du debuta profesionalean. Oñatin ikusi zenez, baina, Jaurregik ere merezi du saltoa ematea. Profesional mailako pilotaria dela erakutsi du Soraluzeko atzelariak txapelketa osoan.

Aurretik gazte mailako finala jokatu zen Oñatiko pilotalekuan. Tellaetxea eta Galarraga bikotea Agesta eta Ibarrari nagusitu zitzaizen. Partidua ia galduta zuten Bidaniakoek 21-14 emaitzarekin, baina markagailua iraultzea lortu zuten eta 21-22 nagusitu ziren.



BENJAMIN MAITEGI

• HERRI-KIROL JAIALDIA OÑATIN



AITOR LIZARRALDE

EURIA EGIN ARREN JENDE UGARI BILDU ZEN

Herriko gazteak aritu ziren lehenengo: soka tiran ikusi genituen. Aizkolariak aritu ziren hurrengo. Barberena-Emazabal bikotea Arrospe-Mugarzaren aurka. Azken hauek, gipuzkoarrak, nagusitu ziren. Harria jasotzen Aimar Irigoienek 225 kiloko harria altxatu zuen, Inaxio Perurenak 255 kilokoa eta Iñaki Perurenak 25 jasoaldi egin zituen 100 kiloko harriarekin minutu 1 eta 20 segundotan.

Urriaren 15ean jokatuko du Hawain mundu mailako Iron Man lasterketa. 3.800 metro igerian, 180km. bizikletan eta maratoia egin beharko ditu. Xabier Trintxerpekoa da

eta Antxintxika elkarteko kidea. Duela lau urte hasi zen triatloian eta azken bi denboraldiak bikainak izan dira. Bitan lortu du Euskadiko txapelketan nagusitzea.

Ez da Xabierrek Hawain jokatuko duen proba bakarra. Hilaren 23an mendiko triatloiko munduko txapelketan parte hartzekoa da. Bietan aritu gura luke.

XABIER LEKUE | TRIATLETA ETA MUNDUKO IRON MAN TXAPELKETARAKO SAILKATUA

“Proba amaitzea dut buruan. 10 ordu eta 37 minutuko nire marka jaistea bikaina litzateke”

Larraitz Zeberio

Egia da aurretik arraunean aritutakoa zarela?

Hamahiru denboraldi egin nituen Trintxerperekin arraunean. Behin bigarren egin genuen Kontxan eta erabaki nuen hori hobetzea zaila izango zela niretzat eta utzi egin nuen. Bizikletarekin hasi nintzen eta gero triatloira egin nuen salto.

Egiten dituzun kirol guztietan lortzen dituzu emaitza onak?

Tira. (Barre). Ezin naiz kextatu, egia esan. Oraingo nahiko gustura nabil.

Fortuna taldeko kidea zinen berau desagertu zen arte. Zergatik erabaki zenuen Antxintxika taldekoa egitea? Ez duzu oso gertu.

Antxintxika taldeko jendea lasterketan ezagutu nuen eta Athletico taldekoa berriz, ez hainbeste. Jende oso jatorra da, giro ona dago elkartean eta bertan sartzea erabaki nuen.

Lasterkari herrikoa zara, baina azken bi urteotan emaitza oso onak lortu dituzu.

Duela lau urte hasi nintzen eta azken biak oso onak izan dira. Nik ez nuen espero hain ondo ibiltzea, egia esan. Iron Man bakarria egin dut eta ondo atera zait. Ez naiz horretarako bereziki entrenatu. Entrenamenduak nik egiten ditut. Ez dut entrenatzailerik. Entrenamendu luzeak eta motibazio handiarekin egiten ditut. Ez dut ezer berezirik egiten, egia esan. **Zer du triatloiak beste kirolek ez dutenik?**

Nire ustez guztiz osoa da. Hiru kirol jorratzen dituzu eta hiru modalitate horiek egiteko aukera ematen dizu. Gorputzaren goi-

ko zein beheko parte lantzen dituzu. Konpentsatua da. Niri hiru kirolak gustatzen zaizkit eta gustura egiten dut.

Lanzaroteko Iron Man proban lortu duzu Hawai-rako sailkatzea, baina esan digute ez zinela oso ondo ibili eta amaitzea zenuela helburu azkenean.

Gurpila zulatu nuen eta dezentte ernegatu nintzen. Amaitzea nahi nuen handik aurrera. Maratoian, ordea, hobeto ikusi nuen nire burua. Esan zidaten ondo nindoala eta animatu egin nintzen. Konturatu nintzen jendea aurreratzen nabilela. Azkenean mundialerako sailkatzea lortu nuen. Bederatzi toki zeuden eta zazpigarrena lortu nuen.

Euskal Herrian zazpi lagun klasi-fikatu zarete. Kopuru polita da, ezta?

Nire ustez ez dago batere gaizki. Estatu mailan uste dut 15

lagun sailkatu garela. Euskal Herriatik bi gipuzkoar, arabar bat, Ermuko mutil bat, bi korrikalari profesional eta ni sailkatu gara. Hemendik zazpi joatea ez dago batere gaizki. Nire ustez kopuru polita da.

Esan didate ez duzula nahi beste denbora entrenatzeko. Haserre zabiltzala.

Bai. Lana goiz eta arratsalde egiten dut eta denbora gutxi dut entrenatzeko, baina ni ez naiz profesionala eta dirua nonbaitek atera behar dut. Ez daukat beste erremediorik.

Hawain egoteak, entrenatzeaz gain, beste zenbait kontu lotzea eskatzen du. Badago dirulaguntzarik triatletendako?

Gutxi. Lortu dudana dirua Antxintxika elkarteak hainbat ekintza bultzatuta lortu dut. Txosna jarri zuten Trintxerpeko jailetan, kamisetak saldu dituzte, galterdiak ere salgai daude orain, Soraluze-Bergara lasterketa... Hortik aparte, Euskaltelekoek esan didate agian bizikleta bat utziko didatela... Honetaz aparte dirulaguntza gutxi jaso ditut. **3.000 euroko aurrekontua eskatzen du Hawaiko abentura honek?**


Gutxi gorabehera. Gertatzen da mendiko triatloi atletendako munduko txapelketarako ere sailkatu naizela. Hawain jokatuko da hilaren 23an. Bertan egongo naizenez nire asmoa jokatzea da. Ikusiko dut zer moduz nagoen Iron Mana egin ondoren. Oso nekatuta banago ez dut egingo, baina bestela bai.

Antxintxikak lan handia egin du?

Antxintxikarekin pozez errotzen nago. Ni laguntzeko egin dutena zoragarria izan da. Ez

“Mendiko triatloi mundialerako ere sailkatu naiz. Urriaren 23an jokatuko dut oso nekatuta ez banago”

“Antxintxika elkartearekin pozez zoratzen nago. Lan handia egin dute nire alde. Oso jende jatorra da”



Xabier Lekue hilaren 8an abiatuko da Hawaiara.

nuen espero. Konturatu naiz talde oso jatorra dela eta merezi dela bertan lehiatzea.

Elkartekoek esan digute oso pozik daudela Antxintxikaren kamiseta Hawain izango delako eta telebista bidez helmugara iristen ikusiko dugulako.

Bikaina litzateke eta ni ere asko poztuko nintzateke. Nire asmoa proba amaitzea da eta ahal den neurrian Lanzaroteko nire marka hobetzea, 10 ordu eta 37 minutu behar izan nituen orduan. Hori kasurik onenean. Lehen helburua amaitzea da.

Lehenengo Antxintxika kros herrikoa, Servimasa saria, egingo da urriaren 12an

“Soralezetik abiatuko dira lasterkariak eta hamaika kilometroko ibilbidea egin ondoren Bergarako frontoian izango da helmuga. Lasterketa herrikoa izatea nahi dugu. Oso aproposa da Behobia-Donostia prestatzen ari diren lasterkari guztientzako”. Antxintxika triatloi taldeko Jose M^a Barrena lehendakariaren hitzak dira. “Inskripzioekin batutako dirua Xabier Lekuerei emango diogu mundialera joateak sortu dizkion gastuetan laguntzeko”.

Gonbita egingo da. Lehen 7 kilometroak trenbide zaharretik igaroko dira. Azken 4 kilometroak, berriz, Bergarako erdigunetik.

“Gauzak erraztu aldera autobusak antolatu ditugu Bergaratik Soraluze”, azaldu dute Antxintxika elkartetik. Bi zerbitzu egongo dira, 9:45ean eta 10:30ean. Izena emateko Arrasateko kiroldegira zein Bergarako Mapfre aseguru etxera edo Lazkano Oinetakoak dendara jo behar da. 3 euro da, 5 euro egunean bertan irteera baino ordu erdi lehenago egingez gero.

“Zozketa handia egingo dugu helmugan parte-hartzaile guztien artean. Dirusariak ere egongo dira lehen hiru lasterkariendako, mutiletan zein nesketan”.

Antolatzaileek 300 bat parte-hartzaile espero dituzte lasterketan.



KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Arrasateko Goikobaluk Sotondrioko abesbatzarekin abestu zuen zapatuan | 22

• Gose, trikitia eta elektronika nahasten dituen Arrasateko taldeak diskoa kaleratuko du hilaren 11n | 22

Alvaro Arrizabalagak historiaurreaz jardungo du hilaren 6an Eskoriatzan | 27

KONTZERTUA | GLEN HUGHESEK EGUBAKOITZEAN EGIN ZUEN KONTZERTUA JAM ARETOAN

Aho zabalik geratzeko kontzertua egin zuen 'rockaren ahotsak'

Bergarako Jam aretoan egin zuen geldialdia egubakoitzean Deep Purple-eko kide ohiak

Asteleheneko Goienkaria

Jam aretora gerturatu zirenen-dako, gau benetan berezia izan zen egubakoitzekoa. Gutxitan izaten ditugu gure artean rockaren historia garaikideko izarrak, eta gutxiri damutuko zitzairen Glen Hughesen emanaldira joan izana. Ordu eta erdiko kontzertuan, gutxi gorabehera, Deep Purple talde mitikoaren ahotsa izandakoak "rockaren ahots" gaitzizena zergatik daraman frogatu zuen. Izan ere, kontzertua amaituta, hura izan zen ahoz aho zebilena: Hughesen ahots ikaragarria bezain moldakorra. Ahots beltza izan dezake Glen Hughesek, baina tarteka erregistrorik altuenera iristeko arazorik ez zuen izan. Abeslaria zer egiteko gauza zen ez zekitenak aho bete hortz geratu ziren bere abileziarekin.

Rock abestiek osatu zuten nagusiki errepertorioa, baina ez zitzaizkien ahaztu 50eko hamarkadako soul ukituak edota Deep Purple-en klasikoak egitea.



Chad Smithek (baterian) eta Glen Hughesek, zati baten, inprobisatutako piezak jo zituzten elkarrekin.

Abesti zerrenda, hala ere, Hughesen bakarkako proiektuetako emaitzetan oinarritu zen batez ere. Izan ere, diskografia luze eta sakona dauka Hughesek eta bereak diren abestiek in ikusizun bikaina eskaini dezake.

Taldeak ere Hughesen ahots eta gitarraren mailan egoten jakin zuen eta benetan aipagarria da Chad Smithen lana baterian. Azken urteetan Red Hot Chili Peppersen barruan ezagutu dugu Chad, erregistro bigunarekin,

baina egubakoitzekoan bateriaren gainean duen joa erakutsi zuen zalantza barik. Emanaldian Hughesek eta Smithek inprobisazio bat egin zuten eta bien arteko elkarrizketa horretan frogatu zuten musikari biek euren jei-

nutasuna. Prentsan bi musikariren arteko duela modura aurkeztu zuten, baina lehiakortasunetik haratago bikote ezin hobea osatzen dutela egiaztatu ahal izan zen, batak besteari itzala egiteko inongo beharrik gabe.

AITOR LIZARRALDE

Kontzertu hobeak egin izan dituzte

A.G.

Egubakoitzean egin zuena baino kontzertu hobeak egin izan ditu Red Alert taldeak Arrasaten. 3.60 aretoan izan ziren eta gogo falta pixka bat nabaritu zitzairen, abeslariari, batik bat. Halaxe zioten egubakoitzean, Arrasaten egin-dako beste zuzeneko batzuetan ikusi dituztenek.

Punk Oi! eta StreetPunkaren gaua izan zen. Red Alert ingelesez aurretik Enboskada arrasatearrak eta Suspenders bilbotarrak ikusi ahal izan genituen.

Enboskadakoek ireki zuten kontzertua eta bateria jotzaileak eskumuturra apurtuta izan duelako denboralditxo batez jo gabe egon diren arren (aurreko asteburuan egin zuten gaztetxean Never Surrenderrekin batera grabatutako diskoaren aurkezpena) denbora berreskuratu dutela erakutsi zuten.

Bilbotarrek ere sasoi onean daudela erakutsi zuten. Bigarrenegoz jo zuten 3.60 aretoan eta bigarren honetan Bilbotik etorritakoak baino Arrasateko jarraitzaile gehiago batu zituzten.



Cicatriz taldearen *Botes de Humo* ezagunarekin agurtu ziren Suspenders bilbotarrak.

AITOR LIZARRALDE

LEHIAKETA | URRIAREN 8AN ETA 9AN EGINGO DA JAZZ LEHIAKETA ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

Jazz musika ezagutzera emateko lau taldek jokatuko dute Debajazz

Hamasei taldetatik lauk jokatuko dute lehiaketa, ordu banako zuzenekoetan

Zuzenekoak GOITBk eskainiko ditu eta Hotsak-ek CDa grabatuko du

Irabazleek 1.500 euroko saria eta diskoa grabatzeko aukera irabaziko dituzte



HIGH GROOVIN | BOSTON (AEB)

Gabriel Riesco (gitarra), Dennis Frehse (bateria), Ales Gordeev (saxoa), Demian Cabaud (baxua eta kontrabaxua) eta Leo Genovese (pianoa) musikariek jazz fusioa egiten dute. AEBn elkartu ziren Boston hiriko Berklee College of Music eskolan. Jazza, swinga, erritmo latinoak, funkia, eta Brasilgo eta Afrikako erritmoak nahasten dituzte.



KARION | BARTZELONA

Sergi Sirvent (pianoa), Marc Cuevas (kontrabaxua) eta Ramon Prants (bateria) kideek urte asko egin dute musika ikasten. Katalunian eta AEBn ikasi dute eta hainbat jazz formaziotan aritu ostean Karion hirukoa sortu dute. Esperimentazio taldea da, hainbat jazz estilotan eskarmentua dute eta.



ZAFARI PROJECT | MADRIL

Julio Botti (saxo tenorea), Maria Sanchez (pianoa), Francisco Lopez (kontrabaxua) eta Borja Barrueta (bateria). Madrilen egiten den jazzetik ihesi dabilen taldea da, proposamen berriak sortuz. Esperientzia badaukate taldekideek, banaka egin dituzten bes-telako proiektuei esker. Gainera, New Yorkeko jazz eskolan ere ibilitakoak dira



EL EJE JAZZ GROUP | DONOSTIA

Carlos Bernal (gitarra), Jose Gallardo (saxo altua), Alejandro Soriazu (pianoa), Iban San Migel (kontrabaxua) eta Francisco Gazol (bateria). Donostiako Musikenen jazz eskolan ikasten dute. Orain dela hiru urte sortu zuten taldea eta hainbat zuzeneko egin dituzte orain arte Euskal Herrian, Nafarroan, Kantabrian, Segovian eta Aragoian.

JOSE FELIX AZKARATE | ERRABALA TALDEKO KIDEA

"Taldea oso interesgarriak daude; batzuk diskoa grabatzera sartzeko modukoak"

Marijo Deogracias

Errabal elkarrekin bultzatu du Debajazz lehiaketa. Zergatik?

Urteak daramatzagu Errabalen jazzarekin; lehenengo urteetan Soraluzen egin genituen emanaldi batzuk eta ia izan genuen ideia hau. Lehiaketarekin jazzean ari diren taldeak ezagutu nahi genituen. Urte gutxi barru, musika arlo horretan saltsa egongo dela dirudi. Dena dela, jaialdi xumea da, geure gustuko musikaz disfrutatzen eta, bide batez, jazzaren panorama ezagutzeko.

Zelako taldeak aurkeztu dira?

Gehienak, Euskal Herria, Madril eta Bartzelonakoak dira. 16, guztira. Ez da izan deialdi zabalena, lehenengo urtea izanda apur bat inprobisatzen aritu garelako. Hala ere, talde oso interesgarriak daudela ikusi dugu eta lehiaketatik kanpo ere, diskoa grabatzera sartzeko moduko maila dute batzuek.

Lehiaketan 4 taldek joko dute zuzeneko Espaloian. Zaila izan da aukeraketa?

Bai; hor ibili gara erabakia hartu ezinda, gehienek oso mai-

la ona erakutsi dutelako. Hirukotetik Big Band baterainoko taldeak aurkeztu dira! Kalitatea, konposizio maila, gaztetasuna..., hainbat irizpide hartu ditugu kontuan aukeratzeko orduan.

Nolako zuzenekoak izango dira?

Ordubetez arituko da talde bakoitza; bina talde egun bakoitzean. Euren kantu batzuk jo beharko dituzte.

Jazz jaialdiak uda partean izaten dira. Zuen, aldiz, udazkenean.

Uda partean leku inportanteetan izaten dira (barreak). Behe aldean bizi garenez, uda pasatu-



Jose Felix, Errabal taldeko kidea izateaz gainera, Hotsak diskoetxean ari da.

ta ez da sasoi txarra; azaroan, esaterako, Elorrioren egiten dute jazz eta blues jaialdia.

2. lehiaketarik egingo duzue?

Hau ondo irteten bada eta jendeak gutxieneko kuriositatea erakusten badu aurrera jarraituko du datorren urtean ere.



AITOR LIZARRALDE

Federico Garcia Lorcaen *Al paso de la seguidilla* lehenengoz abestu zuen zapatuan Goikobaluk.

Kantuez gain oroigarriak ere trukatu zituzten abesbatzek

Arrasateko Goikobalu eta San Martin de Sotondrioko (Asturias) abesbatzek ia bete egin zuten zapatuan San Frantzisko eliza

M.B.

Javier Bengoak, Goikobalu Abesbatzako presidentea, zabaldu zuen zapatuko kontzertua. Sotondrioko abesbatzari ongiatorria eginez zabaldu, gainera, eta baita Arrasatera etorri izana eskertuz ere. Goikobaluk maiatzaren 5ean Sotondriora egindako bisita bueltatzera etorri ziren.

Herri txikia da Sotondrio, baina abesbatza ikusita alde-rantzizkoa dirudi; kideen kopurua nahiko handia da: 28 ahotsek osatzen dute, denak gizonezkoak.

EUSKAL HERRIA ETA ASTURIAS

Anfitrioiak ireki zuten emanaldia, oso ondo gainera, maisutasunez; Dante Andreuren doinuak abestu zituzten, Sorozabalenak eta Luis Aranbururenak. Lanetako bat, gainera, lehenengoz abes-

Asturias patria querida eta Agur, Jaunak abestu zituzten elkarrekin

tu zuten zapatuan: Dante Andreuk musikaturako Federico Garcia Lorca poetaren *Cantos de Fuego* sortatik *Al paso de la seguidilla* poema, hain justu ere.

San Martin de Sotondrio abesbatzak bederatzik kantatu egin zituen. Euren herrialdeari ohore eginez *Viva Asturias* abestu zuten lehenengo eta Euskal Herriari ere ohore egiteko, Boga-Boga, gero. Txalo zaparrada jaso zuten detaile horrekin.

Emanaldiaren hirugarren atalean elkarrekin abestu zuten bi abesbatzek. Bi ereserki kantatu zituzten: *Asturias patria querida* eta *Agur, Jaunak*.

Ekitaldiari amaiera emateko oroigarriak trukatu zituzten eta afari ederra egitera joan ziren Alkartu elkartera.

Gose, trikitia eta elektronika nahasten dituen talde berria

Ines Bolinaga, Iñaki Bengoa eta Tadeos hirukoak osatu dute Gose, eta izen bereko diskoa kaleratuko dute urriaren 11n.

Marijo Deogracias

Oihuka diskoetxearekin aurkeztuko dute Donostian, urriaren 11n, martitzena. Tabacalera zaharraren egoitzan egingo dute aurkezpena, 12:30ean, eta zuzenean hainbat kantu joko dituzte.

Hiru musikari mondragotarrek trikitia eta elektronika nahastu dituzte proiektu berrian. Ines Bolinagak (Isarevolution) trikitia jo eta abestu egiten du taldean; Iñaki Bengoak eta Tadeosek (biak Bad F-Line taldeko kideak) programazioak egin dituzte.

Kolaborazio asko izan dituzte *Gose* lanean; Gatillazo eta La Polla taldeetako Evaristo, Doc-

tor Deseoko Francis, Bad F-Lineko Txema, Juan 'Sangre', SAKo Jimmy eta baita Titiño mondragoetarra ere.

ERRITMO LASAIK

Oro har erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak sortu dituzte, elektro-jazzaren tankerako abestiak osatuz, Oihuka diskoetxetik azaldu dutenez. Shot estudioetan grabatu duten arren, Londresko estudio batera joan dira masterizatzera.

Duela urtebete hasi ziren *Gose* proiektuan lanean eta hamaika abestiko bilduma osatu dute.

Arrasateko 3.60 aretoan egingo dute lehenengo zuzeneko, urriaren 21ean.



ROCK GAUA | TXOSNAGUNEKO EMANALDI BIKAINA

Sex Museum madrildarrek ikuskizun bikaina egin zuten egubakoitzean Oñatin. Jendetza ederra batu zuten eta The Ramones oñatiarrek ere aprobetxatu zuten giroa, Ramones taldearen bertsiokin. Jukebox arrasatearrek amaitu zuten emanaldia. | A.G.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin




UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA I. LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/udakoargazkiak



MONAKOKO BEHIAK. Marguerite izeneko behi pertxenta ezagutu dute abuztuan Monakon. Egundoko usain ona du. Halako jantziekin koloniaren beharrik ez! /Argazkia: Lorea Belategi /Arrasate



INDIAKO BITXIKERIAK. Indian egon da Ander eta askotariko egoerak ikusi ahal izan ditu. Irudikoa Gujaraten egin zuen. /Argazkia: Ander San Martin /Eskoriatza



DORTOKAK EGUZKITAN. Menorcara joan da Jokin aurtengo oportetan. Gauza asko ikusi ditu, baina deigarri, irudiko dortoka egin zaio. /Argazkia: Jokin Ziaurren /Aretxabaleta




PADURATIK ITSASORA. Aurtengo udan, Laidako hondartzan egin zuen argazkia Jonek. Uhinek hondarreak egindako irudiak ageri dira. /Argazkia: Jone Ibabe /Arrasate



VIETNAMGO URAK. Abuztuan Vietnamen egon da Lurdes eta hango irudi hau bidali digu: Halongo bahia eta hango itsasontziak. /Argazkia: Lurdes Hernando /Antzuola



ARDIAK BEGIRA-BEGIRA. Aurtengo uztailean, Oñatitik Donostiara mendiz mendi joan dira eta halako gauza politak ikusi zituzten Mainerrek eta haren lagunek. /Argazkia: Maider Altube /Oñati



EGUZKIARI BEGIRA. Kroaziako Rovinj herrian ere, hango bizilagunak, ez dute egunaren momenturik bereziena galtzen. /Argazkia: Jabi Sanchez /Arrasate



FINLANDIAN. Helsinkiko katedral luteranoaren aurreko aldean, eta ezkerretik eskuinera: Antonia, Maitane, Itsaso eta Mireia ageri dira. /Argazkia: Maitane Barrenetxea /Aretxabaleta



TRENA. Udan, bidaiatzeko modu asko daude. Horietako bat trena da. Askoren gustuko da paisaiatz gozatzeko aukera eskaintzen duelako. /Argazkia: Jokin Etxebarria /Arrasate



PARTENOIAREN EDERTASUNA. Maitane, bere senargai Josurekin batera Grezian izan da abuztuan, besteak beste. Interrail egin dute. Goikoa Partenioia bisitatu zutenekoa. /Argazkia: Maitane Goñi /Antzuola



PIC DU MIDI D'OSSAU. Txapel eta guzti ageri zaigu mendia argazkian. Ibon zoragarria erdi gordeta. Zelako edertasuna naturak eskaintzen diguna. /Argazkia: René Harbustan /Arrasate



CAITTLIN. Nottinghaman (Ingalaterra) egin zion argazkia Mariak irudiko neskatoari, Caittlini. 2003an ateratako argazkia da. /Argazkia: Maria Dapena /Arrasate



PIRINIOETAKO ERREKAK. Edozein urtarotan joanda ere politak dira Pirinioetako errekek. Ordesako erreketako bat da irudikoa, abuztuan, eta argazkilaria ezin izan zen argazkia egin gabe geratu. /Argazkia: Maria Luisa Gonzalez /Arrasate



EKUADOR. Nork esan du Galapagoetako protagonista dortoka dela? Pelikano hau ez dago ados eta bere burua irletako zaindari izendatu du. Begirada horrekin...kasu ez egiteko moduan!!! /Argazkia: Martin Uriarte /Arrasate




PATAGONIAKO GLAZIARRA. Abuztuan Argentinan egon ziren eta hile bukaera aldera, Patagoniara iritsi eta hegoaldean dauden El Calafate herri ondoko glaziarren irudi hau egin zuten. /Argazkia: Mikel Fernandez de Arroyabe /Aretxabaleta



BEHIAK SAKRATUAK INDIAN?. Bai, baina kontua da neska ez dela hindua, budista baizik eta nahiz eta euren ere animaliak errespetatu, bazkaria jokoan dagoenean... /Argazkia: Naiara Alonso /Bergara



SINESTEZINA. Taxi batean El Cairo gurutzatzen ari zirela, leihotik begiratze-rakoan ia ezin izan zuten sinistu ikusten ari zirena: sei lagun Vespa baten gainean (eurak aurreratzen, gainera). /Argazkia: Oihana Aragonés /Aretxabaleta



HIRI URDINA. Rajastango estatuan (India) dago irudiko Jodhpur hiria. Brahama-nek (elizgizonak) margotzen zuten antzina urdinez etxeak. Gaur egun, alde zahar guztia dago horrela, eltxoen kontra ona delako. /Argazkia: Rakek Garcia /Arrasate



MAREN ETA KEPA. Vitigudinon (Salamanca), Keparen amamaren herrian egin zuten argazkia. Irudian Kepa, Maren lehengusina paseatzen azaltzen da. /Argazkia: Kepa Txin-txurreta /Oñati



LAGUNEKIN BIZIKLETAN. Argazki hau 2002ko abuztuan egin zuten. Oñatiko lau lagun Argider (irudikoa), Iban, Aitor eta Roberto, bizikletan Via edo Ruta de la Plata egin zuteneko. /Argazkia: Roberto Maiztegi /Oñati



BIDEAN GALDU. Muxiatik Finisterrera oinez zihoazela, bide okerra hartu eta kilometro batzuk norabide okerrean egin eta gero, atsedean hartu behar! 23:00etan iritsi ziren Finisterrera. /Argazkia: Saioa Altube /Oñati



LORATEGI EDERRA. Glasgow kanpoaldean dago, Pollock Park-en. Glasgoven Rangers eta Celtic futbol taldeen arteko derbia zela-eta lasaitasun bila joan ziren parke horretara . /Argazkia: Ane Garciandia /Bergara



GLAZIARRA. Noruegara joan ziren oporretan eta besteak beste, halako glaziarrak ikusi zituzten. Irudikoa Nordfjorden dago. /Argazkia: Mari Carmen Bonilla /Eskoriatza



ESKOZIA. Autoa alokatu eta Highlandsetatik 1.200 km. egin zituzten.Argazkiko lakua ipar-mendebaldeko kostan dagoen Gairloch herritik Loch Maree lakura bidean aurkitu zuten. /Argazkia:Unai Lopez /Bergara



BATLLO ETXEA. Bartzelonan izan da oporretan Nerea eta eraikin ugari ikusi dituen arren, bereziki deigarri egin zaio Grazia pasealekuko Batllo etxea. /Argazkia: Nerea de Blas /Arrasate



INDIA. Argazkia Darjeelen-eko Gompa Goom monasterioan egin dute, aurten, Himalaya mendilerroko magalean bizi diren budista ikasleak ageri dira. /Argazkia: Uxue Bolinaga /Oñati



BENIDORMEKO HONDARTZA. Jende pila zegoen egun hartan. Ispilutxo batekin jolasten hasi zen Yera, eta bere isla beharrezan ingurukoena bilatzen jardun zuen. /Argazkia: Yera Sanchez /Aretxabaleta



TXIMELETA. Udan Intxorta mendira joan eta ikusitako tximeletari argazkia egitea erabaki zuen Vicenek. Goiko irudikoari, hain zuzen. /Argazkia: Vicen Garcia /Bergara



EKIALDEKO ALEMANIA. Riesa izeneko herria eta Elba ibaia dira irudian ageri direnak. Uholde batek guztiz txikitu zuen herria duela hiru urte. /Argazkia: Xabier Alzelai /Oñati



SAN FERMINETATIK IHESI. San Juanetan, Palma de Mallorcara joan eta San Ferminetatik ihesi zegoen zezena ez zuten ba hondartzan, siesta orduan, aurkitu! /Argazkia: Zuhaitz Larrañaga /Bergara

Baldintzak:

- Udako argazkiak izan behar dira: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Debagoieneko edozeinek parte har dezake.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta.
- Bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.

- Nahi beste argazki bidali ahal izango dira.
- Adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina eta telefonoa, eta argazkiaren deskribapen txiki bat.
- Astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n.
- Urriaren 10eko *Asteleheneko Goienkaria*-n aditzera emango dira irabazleen izenak.

Sariak:

- 1. saria: Olympus E-300 reflex** argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
 - 2. saria:** bi gaueko/hiru eguneko egonaldia Kantabria edo Asturiasen Eroski Bidaiak agentziaren eskutik.
 - 3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.
- **SARI BEREZIA:** parte hartzaile guztien artean zozketatuko den sari sorpresa.



Babeslea:



gizarte ekintza

Laguntzaileak:



Itzultzaileen tailerra eta literatura solasaldiak, liburuzaleen aukerak

Jokin Muñoz eta lau itzultzailek jendaurrean jardungo dute Elgetan, idazlearen 'Hausturak' ipuina itzultzen

Leire Kortabarria

Literaturarekin eta idazkuntzarekin lotutako bi ekintza deitu dituzte datozen egunotan ibarrean.

Ezohikoena Elgetako Espaloia antzokian antolatu du Euskal Idazle, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak (EIZIE): *Itzultzaileak, idazlea lagun* itzulpen lantegia. Gaur, astelehena, hasi eta eguenera, urriaren 6ra, bitartean izango da. Jokin Muñozen *Hausturak* liburu izen bereko ipuina lau hizkuntzataraz itzultzen ariko dira beste hainbeste itzultzaile, zuzenean euskaratik, eta jendaurrean egingo dute lan. Ekintzaren berezitasuna da

Muñozen beraren laguntza izango dutela horretarako Espaloian bertan. Itzultzaileak eta hizkuntzak dira Gabi Schwab (alemanera), Roberta Gozzi (italiera), Daniel Lujan (katalana) eta Adam Zawiszewski (poloniera).

Bukaera ekitaldia urriaren 6an egingo dute Gasteizko Montehermoso kulturunean.

SOLASALDIK ARRASATEN

Hori ezohiko ekintza baldin bada, urtero antolatzen den beste bat ere badago aukeran: Arrasateko Udal Liburutegiak antolatutako Literatura Solasaldiak. Izenemate epea zabalik dago urriaren 15era bitartean kultura etxean bertan.

Sei saio izango dira, hiru euskaraz eta hiru espainolez. Koordinatzaileak dira Iban Zaldia (euskaraz) eta Rikardo Arregi (espainolez). Saio bakoitzean, irakurle talde batek liburu bat komentatuko du, idazlearen gidaritzapean. Aurten go liburuak dira *Belarraren ahoa* (Harkaitz Cano), *Giza faktorea* (Graham Greene) eta *Eta harkadian ni* (Anjel Erro).

Labur

Iñaki Riviere arrasatearraren margolan erakusketa dago zabalik

Erakusketa berri bat dago Arrasateko Arregi markoztatze dendan joan den egubakoitzaz geroztik: Iñaki Riviere margolari arrasatearraren margolan batzuen. 15 bat lanek osatzen dute bilduma berri hori. Teknika aldetik, olioak dira; gaiak dagokienez, gustuko dituen motiboak erabiltzen ditu Rivierek, hau da, paisaiak eta hiri-ikuspegiak, eraikinak eta arkitektura.

Erakusketa bisitatzeko aukera duzue urriaren 28ra bitartean. Maala errabaleko 8. zenbakian dago Arregi galeria.

Historiaurrearen gaineko hitzaldia egingo du Alvaro Arrizabalagak

Euskal Herriko historiaurrea: Lezetxiki delako hitzaldia egingo du Alvaro Arrizabalaga aditu oñatiarrak eguenean, hilak 6, Eskoriatzako Ibarraundi museon, 19:00etan. Hitzaldi horrekin bukatuko da Ibarraundin egin den Gure aztarnen bila zikloa.



Zeramika eta emakumeendako eskulan ikastaroak daude Bergaran

Zenbait ikastaro antolatu berri dituzte Bergaran. Bergarako Emakumeen Kultura Elkarteak (BEKEk) urrian hasiko du eskulan ikastaroen ikasturtea. Izena emateko, deitu 625 70 78 92 edo 685 72 89 55 zenbakira. Martitzen eta eguenean edo astelehen eta eguaztenetan egin daiteke.

Bestetik, Simon Arrieta zeramika taldeak hasiberriendako ikastaroa antolatu du. Zabalotegiko tailerrean izango da. Interesa duzuenok deitu 626 92 04 13 edo 943 20 65 01 telefonora.

Hitzorduak



GAZTEENDAKO PERKUSIO IKASTAROA ANTOLATU DUTE ESKORIATZAN | Hainbat ikastaro eskainiko ditu Udal Gazte Zerbitzuak datozen hiletan

Eskoriatzako Udal Gazte Zerbitzuak gazteei zuzendutako hainbat ikastaro antolatzen dihardu irailaz geroztik. Hala, urriaren 18, 19 eta 20an, perkusioa jotzen ikasteko aukera izango da. Izenemate zabalik dago Udal Gazte Zerbitzuan, martitzen edo eguenean, 09:30-17:30,

gazteria@eskoriatza.net helbidean edo 620 06 31 15 telefonora deituta. 3 euro da.

Datozen asteotan ikastaro gehiago izango dira. Hala, ikertzen ari dira henna tatuaje ikastaro bat egitea; azaroan, funky dantza landuko dute, eta Gabonetan, masaje tailerra izango da.

ZINEMA |

• *Semen, una historia de amor* filma Arrasaten

Amaia udal antzokian izango da emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna da. Filma komedia erromantikoa da. *Serafin* medikuak bere semena ematen du *Ariadna*-k, berak lan egiten duen klinikara doan neskak, bere ametsa bete eta umea izan dezan. Ines Paris eta Daniela Fejerman-ek zuzendutako zuten filma, eta protagonistak dira Ernesto Alterio eta Leticia Dolera.

• *Aupa Etxebeste!* filma Eibarren ikusteko aukera

Asier Altuna bergararrak Telmo Esnalekin batera zuzendutako film hori Eibarren ikusteko modua dago gaur, astelehena, hasi eta etzira, eguaztena, bitartean Unzaga zineman, egunero 19:30ean eta 22:15ean.

• *Smoke* filma emango dute etzi, eguaztena, Elgetan

Espaloia kafe antzokian emango dute film hori, 21:30ean. Wayne Wang eta Paul Austerren film hori Brooklynen girotuta dago, 1987an, estanko baten batzen diren pertsonaia batzuen inguruan: argazkiak maite dituen estankoko arduraduna, krisian dagoen idazle bat, galduta sentitzen den nerabe bat... Berlingo zinema jaialdian Urrezko Hartza irabazi zuen 1995. urtean.

• **Herriko jaiak direla eta, ez da zinema emanaldirik Oñatin** San Migel jaiak direla eta, gaur, astelehena, ez da zinema emanaldirik egongo Oñatin.

IKASTAROAK |

• **Zure egunkaria irakurri Internet ikastaroa Antzuolan** *Zure egunkaria irakurri* delako Interneteko ikastaroa emango dute eguenean, hilak 6, KZGunean, 17:00-18:00.

• **Contact dantzarako izenemate epea, luzeagoa** Izena emateko epea urriaren 14ra luzatu du Gozatu ekimenak. Ikastaroa urriaren 19tik Gabonak arte izango da, Aretxabaletako Kurtzebarri eskolan, 20:00-21:30. Langabeek eta ikasleek 21 euro ordaindu beharko dute; langileek, 24. Izena emateko, joan Azkena tabernara edo Arrasateko Aker tatuaje dendara. Argibideak, 943 77 12 00 telefonon (Maier).

• **Internet ikastaroak Aretxabaletako KZGunean** Honako Internet ikastaroak izango dira KZGunean: oinarriko ikastaroa (urriak 3-14), *Etxetik eros ezazu* (urriak 4, 11:00-12:00) eta *KZGuneko Foroa eta FAQ* (urriak 6, 11:00-13:00).

• **Eskulan eta informatika ikastaroak daude Oñatin** Hainbat ikastarotan izena eman daiteke urriaren 6tik

18ra bitartean: hari eta puntu lanak, margolaritza (helduendako eta umeendako), zeramika (helduendako eta umeendako), eskulanak eta margolaritza apaingarria eta joskintza. Kultura etxean eman behar da izena. Helduen matrikula 35 euro da; umeena, 25 euro. Bestetik, informatika tekniko, informatika artistiko eta etxeko sareen gaineko ikastaro bana ere antolatu dute; horietarako izena eman daiteke urriaren 7ra bitartean, 943 03 77 00 telefonon.

• **Telesailtako hari-idazketa ikastaroa emango dute** Telesailtako hari-idazketa ikastaroa antolatu du Sarobe Arte Eszeniko Guneak urriaren 14tik abenduaren 23ra (40 ordu), euskaraz eta espainolez. Argibideak, 943 00 80 42 telefonon edo sarobe@urnieta.org helbide elektronikon.

LEHIAKETAK |

• **Zientziaren gaineko lehiaketa DBHkoendako IV. Zernola Olinpiada deitu du** Elhuyar fundazioak DBHko 1. eta 2. mailakoendako. Urrian hasiko da. Helburua da erakustea zientzia dibertigarria dela. Hainbat sari banatuko dituzte bukaeran, maiatzean. Argibide gehiago aurkituko duzue www.zernola.net webgunean.

Zorion agurrak



ARRASATE
Eider Alonso
Irailaren 10ean, 2 urte. Zorionak. Arizmendi-San Viator txiki.



ARRASATE
Gorka Aranbarri
Irailaren 26an, 8 urte. Zorionak! Gurasoak eta Oihana.



ARRASATE
Asier Urbarren
Irailaren 29an, 7 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARRASATE
Fidel Rodriguez
Urriaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak eta Urtebeto lagunak.



ARRASATE
Daniel Rodriguez
Urriaren 1ean, 5 urte. Zorionak. Arizmendi San Viator txiki.



ARRASATE
Amaia Garai
Urriaren 2an, 14 urte. Zorionak eta urte askotarako! Koadrilakoak.



ARRASATE
Kepa Lezeta
Urriaren 2an, 4 urte. Zorionak. Arizmendi-San Viator txiki.



ARRASATE
Enara Davila
Urriaren 2an, 5 urte. Zorionak. Arizmendi-San Viator txiki.



ARRASATE
Lorea Etxabe
Urriaren 2an, 3 urte. Zorionak. Arizmendi San Viator txiki.



ARRASATE
Unax Iñarra
Urriaren 3an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak eta Gorka.



ARRASATE
Balbina Mondragon
Urriaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Jone Zubizarreta
Urriaren 6an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak, bereziki Iker.



ARRASATE
Unai Zugasti
Urriaren 7an, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Ibon Muniategiandi-koetxea
Urriaren 6an, 4 urte. Zorionak! Markel, etxeko denak.



BIASTERI
Onintze Rementería
Irailaren 29an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



BERGARA
Ane Arenaza
Urriaren 2an, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



BERGARA
Maitane Muruamendiaraz
Irailaren 30ean, 8 urte. Zorionak gure printzesari! Etxekoak.



BERGARA
Maria Cid
Urriaren 8an, 8 urte. Urte askotarako! Laura eta Oierren partez.



BERGARA
Joseba Elortza
Urriaren 10ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARETXABALETA
Rosario Uriarte
Urriak 1an urteak. Zorionak eta muxu handi bat Amama!!! Pello-n partez.



ESKORIATZA
Maren Markaide
Irailaren 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



ESKORIATZA
Iñaki Gabilondo
Irailak 22an, urtebetetzea. Naroa, Kimetz eta etxeko-en partez.



ESKORIATZA
Agurtzane Gainzarain
Urriaren 2an. Gaur bai eguna 40 km egiteko. Lankideak.



ELGETA
Maite Mandaluniz
Urriaren 1ean, urteak. Zorionak eta muxu handi bat! Lagunak.



Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

ARRASATE IRRATIA


Jaiotakoak



Elene Ciarso Gallastegi
Bergara • 2,850 Kg. Irailak 21. Gurasoak: Asier eta Nerea (Bergara). Argazkian: Elene begiak zabal-zabalik.



Aitor Gallego Bereziartua
Arrasate • 3,550 Kg. Urriak 1. Gurasoak: Txema (Aretxabaleta) eta Ane (Arrasate). Argazkian: Aitor bere kuman, begiak erdi irekita.



ESKELAK
ASTELEHENEKO GOIENKARIAN

82 euro
943 76 92 71

Urriaren 3a: 057 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urriak 3, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 35 euro

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

EIBAR-REAL MADRIL B futbol partidua ikusteko sei gonbidapen (saridun bakoitzari bina emango zaizkio)

- Maria Luisa Altuna Laskurain (Bergara)
- Juan Mari Zabaleta Gurrutxaga (Arrasate)
- Aitziber Legorburu Errasti (Oñati)
- Aitor Garitano Larrañaga (Bergara)
- Zurich aseguruak (Oñati)
- Luis Gatxegi Larrañaga (Osintxu)

Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOA KAFE ANTZOKIAN** urriaren 8an izango den jazz kontzerturako.


- Amaia Lizarralde Borda (Bergara)
- Juan Jose Astondoa Errasti (Aretxabaleta)

Bi gonbidapen **ELGETAKO ESPALOA KAFE ANTZOKIAN** urriaren 8an izango den jazz kontzerturako.

- Jose Mari Ugalde Laskurain (Antzuola)
- Mikel Larrañaga harategia (Arrasate)

Urriaren 10eko sariak

- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTAN** bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).
- Bi gonbidapen Elgetako **ESPALOA KAFE ANTZOKIAN** urriaren 18an izango den musika kontzertu berezira. (saridun bakoitzari bina emango zaizkio)



Bi gonbidapen Elgetako **ESPALOA KAFE ANTZOKIAN** urriaren 14an izango den "666" antzerkirako (saridun bakoitzari bina emango zaizkio)



Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:05

Kilometroen balorazioa eta eklipsea, berba

Udazken-neguko autobusa mar-txan jarri eta uhinetan barrena bidaiatuko dugu. Kilometroen ardu-radunekin egongo dira horren balorazioa egiteko. Horrez gain, Ilatargi astronomia elkarteak Zamorara egin du txangoa gaurko eklipsea ikusteko. Beraiekin izango dira.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 09:00

Eklipsea, Ceutako etorkinak eta Orleans

10:00etan, Euskadi Irratiko kazetariak Miramonera hurbilduko dira, Kutxa-espazioko Planetariumera. Handik eklipsearen berri emango dute. 10:15ean, Ceutan duten lan-kide Haritz Agirrek etorkinen egoeraren berri emango du, eta New Orleansera ere joango dira.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Jose Elorrieta eta, gay eta lesbianen liburuak

10:00etan, ELA sindikatuko arduradun Jose Elorrieta elkarrizketatuko dute. 11:50etik 13:00etara bitartean, Valentziaraino bidaiatuko dute handik eklipsea zelan ikusten den azaltzeko. Horrez gain, gay eta lesbianen familiendako liburuak aurkeztuko dituzte.

Loiola Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Kilometroak jaiaren balorazioa jasoko dute

Gaur telebistan

GOITB



Albistegiak eskainiko dituzte orduro 20:45

Goiena Telebistak ahalegin berezia egingo du azken orduko informazioa eskaintzeko.

- 13:45 Emisio hasiera.
- 13:20 Marraski bizidunak: *Reporter Blues*.
- 13:47 Kilometroak 05. Goizeko ekitaldiak.
- 14:15 Sukaldaritza saioak.
- 14:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 *Lazkao Txiki*.
- 14:45 Albistegia.
- 15:00 Bidetxurretik.
- 15:30 Eguraldia eta zerbitzuak
- 15:35 *Lazkao Txiki*.
- 15:45 Albiste aurre-rapena.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@.
- 16:30 Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:35 *Lazkao Txiki*.
- 16:45 Albistegia.
- 17:00 Kilometroak 05. Arratsaldeko ekitaldiak.
- 17:30 Motzean eta Zera dio.
- 17:45 Albistegiaurre-rapena.
- 17:47 Kilometroak 05. Kontzertuak.
- 18:15 Jaun eta Jabe.
- 18:45 Albistegia.
- 19:00 Klip@.
- 19:15 Jaiak 05. Oñatiko Herri Eguna.
- 19:45 Albistegia.
- 20:15 *Reporter Blues*.
- 20:45 Albistegia.
- 21:15 Kilometroak 1.
- 21:45 Albistegia.
- 22:15 Kilometroak 2.
- 22:45 Albistegia.
- 23:00 Kilometroak 3.
- 23:30 Sukaldaritza.

ETB 1



'Basetxea'-ko abentura berri bat 22:25

Basetxea Gori-Gori saio berrian, 16 lehikidek aurre egin beharko diote bizimodu gogorrari.

- 06:55 Tik Tak Circus.
- 07:25 Betizu. *Doug, Hirukiak, Vitaminix, Doremiren magia eta Montana*.
- 09:15 Eklipse@.
- 09:40 Bidaide. Liz-tortzarra, ezten ozarra.
- 11:25 Elkartasunaren bideak.
- 12:05 Bertatik Bertara.
- 12:45 Trave notes. *Surfa*.
- 13:10 Betizu.
- 14:00 Gaur Egun.
- 14:40 Postada.
- 14:45 Eguraldia.
- 14:50 Goenkale.
- 15:20 Bidaide. *Otsoren ereserkia*.
- 17:05 Sustrai.
- 17:35 E-Klipse@.
- 18:00 Iparraldearen orena.
- 18:05 Betizu.
- 20:00 Gaur Egun.
- 20:45 Eguraldia.
- 20:55 Bertatik Bertara.
- 21:45 Goenkale.
- 22:25 Basetxea Gori-Gori.
- 23:55 Eguna iruditan.
- 00:00 Postdata.
- 00:05 Kar Kar Kluba.
- 00:35 Egi bidean.
- 00:45 Bakarrrik edo...
- 02:45 Bertatik Bertara.
- 03:25 Benta Berri.
- 03:55 E-Klipse@.
- 04:15 Berriketatu gutxi.
- 04:40 Euskal Herri-tik.

ETB 2



Lu doktoreari berri txarrak emango dizkiote 00:05

Lu-ren semeak familia izan behar duela konturatuko da Delgado doktorea, *Doctoras de Filadelfia*-n.

- 07:00 Del país de los vasos. *Historias de un tren*.
- 07:35 Rutas de solidaridad. *Guatemala, trabajar por la continuidad*.
- 08:00 Embrujada.
- 09:00 Forum.
- 09:30 El Punto.
- 10:05 La zona muerta. *Una utopía*
- 11:00 Stargate. *Rito de iniciación*
- 11:55 La cocina de Pedro Subijana.
- 12:10 Se ha escrito un crimen.
- 13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin.
- 14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua.
- 15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin.
- 16:00 Pásalo.
- 17:55 Cine western.
- 20:20 Esta es mi gente. Claudio Landarekin.
- 20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin.
- 21:50 Eguraldia.
- 21:55 Mi querido kli-kowsky.
- 22:55 Nip/Tuck: a golpe de bisturí. *Naomi Mason*.
- 23:55 El día en imágenes.
- 00:05 Doctoras de Filadelfia. *Aumento de masa corporal y Tiempo de recuperación*.
- 01:40 El elegido.

TVE 1



Antoniok eta Andreak azken gaua elkarrekin 16:00

Antoniok gerrara joan behar du, eta azkeneko gaua igaroko du Andrearekin, bonba artean.

- 06:00 Canal24 horas.
- 07:00 Telediario matinal. Igor Gomeze-kin, Susana Rozarekin eta Salvador Martin Mateosekin.
- 09:00 Los desayunos de TVE.
- 10:15 Saber vivir.
- 11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. Ana Blancok albiste aurrerapena egingo du.
- 14:00 Informativo territorial.
- 14:30 Corazón de otoño. Txutxu-mutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin.
- 15:00 Telediario 1. Ana Blanco eta Maria Escariorekin.
- 15:55 El tiempo.
- 16:00 Amar en tiempos revueltos.
- 16:45 Amarte así, frijolito.
- 17:55 España directo.
- 19:30 Vamos a cocinar... con Jose Andrés.
- 20:15 Gente. Sonia Ferrerarekin eta Maria Jose Molinarekin.
- 21:00 Telediario 2. Lorenzo Milárekin eta Jesus Alvarezekin.
- 21:55 El tiempo.
- 22:00 Mira quién baila. Ane Igartiburuk aurkezten duen dantza saioa.
- 00:15 59 segundos.
- 02:00 Telediario 3.

La 2



'Las chicas Gilmore' saioan, bi kapitulu 11:00

Lorelai eta Roryk Harvardera egingo dute bidaia. Liz-ek, berriz, semea bialduko dio Luke-ri.

- 07:30 Los Lunnis.
- 09:30 Aquí hay trabajo.
- 10:00 TV educativa: La aventura del saber.
- 10:55 Diez líneas en el Quijote.
- 11:00 Las chicas Gilmore.
- 12:30 Padres en apuros.
- 13:00 Los Lunnis. *Arthur y el fabuloso mundo de los hechizos*.
- 15:10 Diez líneas en el Quijote.
- 15:15 Saber y ganar.
- 15:45 Grandes documentales. *Herederos de la Tierra*.
- 16:55 Pueblo de Dios.
- 17:30 Los Lunnis.
- 19:55 Los problemas crecen.
- 20:00 Informativo territorial.
- 20:30 Deportes en La2.
- 21:00 Apartamento de soltero.
- 21:35 Miradas 2.
- 21:45 Sorteo de la bonoloto.
- 21:50 La2 Noticias.
- 22:15 El tiempo.
- 22:30 ¡Qué grande es el cine! *El desierto rojo*.
- 01:45 Los conciertos de Radio3.
- 02:15 Aciencia cierta.
- 02:45 Aquí hay trabajo.
- 03:15 La aventura del saber.

Antena 3



Badator 'El señor de los anillos' filma 21:45

Film hori eskaintzeko kontu handiz erabili beharko du A3k publikitate. Jai daukagu, bestela.

- 06:00 Las noticias de la mañana.
- 08:30 Ruedo Ibérico. Montserrat Dominguezekin.
- 10:00 La mujer en el espejo.
- 10:45 Cada día. Teresa Camposekin.
- 14:00 Los Simpson. *El cuarteto cocal de Homer eta El cabo del miedo*.
- 15:00 Noticias 1.
- 15:45 El tiempo.
- 16:00 El auténtico Rodrigo Leal.
- 16:30 Pasión de Gabilanes.
- 18:00 Estoy por ti.
- 19:00 El diario de Patricia.
- 20:15 ¿Quién quiere ser millonario?
- 21:00 Noticias 2.
- 21:45 El pelucón. *El señor de los anillos 1. La comunidad del anillo*. Zuzendaria: Peter Jackson. (2001). Akto-reak: Elijah Wood, Ian McKellen, Viggo Mortensen. Frodo Bolson hobbit gazteari sekulako boterea daukan eraztun berezia emango dio bere osabak, eta orduan hasiko da bidaia luzea.
- 01:30 7 días, 7 noches saioa. Teresa Viejorekin.
- 02:30 Noticias 3.
- 02:50 Televanta.
- 05:00 Errepikapen.

Tele 5



Chinatow-en ahaleginduko dira lapurtzen 23:00

CSI New York-en, lapurrak Chinatownera lapurretan joan, baina dena egingo dute aldrebes.

- 06:30 Informativos Telecinco matinal.
- 09:10 La mirada crítica.
- 10:45 El programa de Ana Rosa.
- 14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparrarekin.
- 15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcayderekin.
- 16:30 Operación Triunfo.
- 17:00 A tu lado. Emma Garciarekin.
- 19:30 Allá tú. Arturo Vallsekin.
- 20:30 Informativos Telecinco.
- 21:15 Camera Café.
- 22:00 C.S.I Miami. *Legal*. 18 urteko neska bat hil arte sastakatu-tuko dute diskoteka ezagun bateko komu-nean.
- 23:00 C.S.I New York. *Lluvia*.
- 00:00 C.S.I Miami. *Dinero a cambio de nada eta Aspirante*, 02:00 Informativos Telecinco.
- 02:30 Madrugada de cine. *Zona cibernética*. Zuzendaria: Fred Olen Ray (1995). Akto-reak: Marc Singer, Matthias Hues. Jack Fordek lurrera iritsi diren lau humanoide suntu beharko ditu.

Astean GOITBn

Astlehena, 3



'Kilometroak 05'

Ekitaldi guztien saio bereziak
Kilometroak jaiaren izandako ekitaldi guztiek saio bereziak antolatuko dituzte. Zatika emango dituzte GOITBn, bai egunean zehar, baita gauean ere.

Martitzena, 4



'Motzean' | 14:15

Elkarrizketatuetako bat izan nahi duzu?
Ibarreko edozin herritar izan daiteke *Motzean* saioaren protagonista. Herri-tarrei egindako elkarrizketa labur, baina intimoekin egindako saioa izango da.

Eguaztena, 5



'16 mm' | 22:15

Film euskaldunetz gozatzeko aukera
Film laburren gaineko saio berria prestatu du Ibarreko telebistak. Film euskaldunak emango dituzte, eta baita euren egileei egindako elkarrizketak ere.

Eguena, 6



'Didjeridu' | 22:15


Ibarreko gazteak protagonista
Debagoieneko gazteei egindako elkarrizketa saioa. Sexualitatea, zinea, gizarte, teknologia berriak... Lehenengo gonbidatua, Madrilen ikasten dharduen Maite Albes izango da.

Egubakoitza, 7



'Ilunpean' | 22:15

Txan magoak irekiko du denboraldi berria
Oihana Elortzak *Ilunpean* saioa denboraldi berria estreinatuko du egubakoitzean. Lehenengo saioan Txan magoa jarriko du telebistako kameraren aurrean.



BERRIKUNTZAK:

- **PROGRAMAZIOA**
Etenik gabeko programazioa
(13:15 / 00:15)
- **INFORMATIBOAK**
Orduoro eta inor baino lehenago
(laurden gutxi guztietan)

SAIO BERRIAK:

- **16 MM:** Film laburren saioa
- **MOTZEAN:** Herritarrei elkarrizketak
- **DIDJERIDU:** Gazteendako saioa

TELEBISTA IRAULI EGIN DUGU

- Etenik gabeko programazioa
- Informatiboak orduoro
- Programazio berria



Ikustekoa!

Hamarrekoa

MIKEL GOÑI | PILOTARIA

"Pilotan jarraitu nahi dut eta ondo egin behar ditut gauzak Asegarcen laster sartzeko"

Larraitz Zeberio

1. Zer moduz Ordago enpresan? Jaso nuen beste eskaintzarik, baina erakargarriena hauxe zen. Juanpe Azkuna aspalditik ezagutzen dut eta pozik nago hartutako erabakiarekin. Gustura nabil.

2. Entzun berri dugu Asegarcen enpresarekin fitxatzea darabilkizula buruan. Juanperekin argia izan nintzen. Nire asmoa pilotan jarraitzea da eta gauzak ondo egin nahi ditut Asegarcen enpresan sartzeko. Aurrez aurre ez dut hitz egin, baina badakit badagoela zerbait gibeletik.

3. Jarraitzaile asko dituzu. Nola moldatu zara fidelotasun hori lortzeko? Nire jarraitzaileak, orokorrean, amorratuak dira. Ez dira erdi bidean gelditzen. Lasaitasuna ematen didate. Eurak hor egotea seinale ona da niretzat.

4. Gaizki esaleak ere badituzu, ordea. Eta amorratuak hauek ere. Ni beti izan naiz polemikoa, baina garrantzitsua da jendeak zuri buruz hitz egitea. Ondo edo gaizki, baina hitz egitea.

5. Zer da zailagoa, pilotari ona izatea edo aita ona izatea? Beti gustatu izan zaizkit haurrak eta gustura egoten naiz hiru urteko semearekin. Maite baduzu semea ez da zaila aita ona izatea. Niretzat pilotaria izatea oso bestelako gauza da. Ezin dira bi gauzak konparatu.

6. Bada onddorik Baztanen? Askok. Ostegunean ama-rekin joan nintzen eta 14 kilo batu genituen. Lauzpabost kiloko egunak ere asko izan ditut. Bat baino gehiago. Baina ez horrelakorik idatzi elkarrizketan. Jarri jaitsi egin dela kolpea, bestela berehala izango ditugu han ondo lapurrak (Barre).

7. Udan 18 partidu jokatu dituzu. Parrandarako tartegutxi, beraz? Ez nahi beste, baina beti aurkitzen da tartetxo bat. Orain parrandak bestelakoak dira. Partidu amaieran eta hotelean bertan.

8. Lau t'erdia jokatzeko asmoa duzula entzun dut. Gustatuko litzaidake baina ez dakit lortuko dudan. Seguru asko ez naiz sartuko. Ea urte amaieran eta zorte pixka batekin bikoteka sartzeko aukerarik dudan.



AITOR LIZARRALDE

Gure pilotari polemikoa da eta, ziur asko, zeresan handia eman-
go du oraindik ere. Ez pentsa horrek asko arduratzen duenik.
Egubakoitzean Arrasateko Uarkapen jokatu zuen eta tartetxoa
egin zuen gure galderei erantzuteko. Ordago enpresan dabil, bai-
na Asegarcerekin fitxatzea da orain bere helburua. Horretara-
ko, baina, argi du meritua egin beharko dituela.

9. Ez duzu sekula amore ematen, ezta? Ez. Zer-gatik? Nahiago dut zutik bizi beti belauniko bizi baino. Horrelako zerbait esaten zuen Che jaunak. Nik berdin pentsatzen dut. Borroka beti.

10. Lagunarteko partidurik jokatzeko duzu? Koadrilak txapelketa txiki bat egiten du herrian. Otxandorenaren koadrilakoa naiz eta gure saioak egiten ditugu pilota goxoekin.



Biharamuna

Edu Mendibil

Ortzadarra Leintzen

Derrepentean joan zaigu uda eta atzo ez zuten eguraldiarekin zorterik izan Arizmendikoek eta Leintz bailara hurbildutakoek. Antolazaila Pello Zabalarri agindu zioten eguraldi ona, baina ortzadarrarekin konformatu behar. Ez da gutxi. Politikari ezagun asko hasiera ekitaldian; guardasola, mendiko botak eta anorakarekin etorri ziren gehienak. Originalena, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri. Golfeari jokatzeko zapatekin etorri zen Aldun Nagusia Aretxabaletara. Oñati aldean ibiltzen diren golfzaleek *aliatu* bat izan dezakete Debagoienara golf zelai publikoak ekartzeko ahalgintetan. Goizean, kafetxoa hartu bitartean, eguraldia eta Katalunian onartu berri duten estatutuaren aldaketa ziren gai nagusiak politikoen artean.

Neska-mutikoak europen kantari aritu ondoren, Jose Antonio Altuna eta Alberto Iñurrategik moztu zuten zinta. Txatillo 1981ean Arrasaten egin zen kilometroen koordinatzailea izan zen eta jaiaz gozatzeko irrikaz zegoen. Bailarako komunikabideak hobetze aldera, trenbidearen falta igartzen zuen. Ez nuen ibilbidea egiterik izan, baina Gorka Etxabe lankideak esan didanez, ederra da, eguraldi hobearrekin gozatzeko modukoa. Atzo kale egin genuenok izango dugu horretarako aukera.

Biharamuna gaur Leintz bailaran eta Errosoixo Bixamona Oñatin, moztuko eta guzti. Golfzaleak bakarrik ez. *Golfuak* ere bai han.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

Oñatiko herri eguna

Astelehenean, urriaren 3an,
19:15ean

Martitzenean, urriaren 4an,
21:15ean eta 23:00etan



Ikustekoa!

Babeslea:



Laguntzaileak:

Aldasoro, Chic, Kontxi poltsak, Milar Lete, Mizke, NI, Oñatiko Udala, Sua, Talleres Chapime, Txantxiku elektrizitatea, Urtxin

